



**HONETAN
ERE...
SEGURU
HIZKUNTZA
JARDUERAK**

**ETA MUGI-
KORTASUN
SEGURUA**

**DERRIGORREZKO
BIGARREN
HEZKUNTZA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Tráfico Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico



AURKEZPENA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumean, mugikortasun segurua zeharkako eduki gisa sartu da curriculumeko hainbat arlotan, bereziki *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza* eta *Etika eta Gizabide Hezkuntza* arloetan. Ohituraz bide hezkuntza esan izan zaiona, maiz, bigarren mailan geratu izan da gainerako edukien presioaren ondorioz. Hala ere, ikastetxe askok, ikasgelan zirkulazio istripuen prebentzioa landu behar dela jakitun izanik, mukurua beteta izan ohi duten egutegiko ordu batzuk kanpoko eragileei uzten dizkiete, bide hezkuntzako jardueraren bat egiteko.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzan, harago joan behar dugula pentsatzen dugu. *Mugikortasun segururako hezkuntza* modu integratuan sartu behar da eskola curriculumean. Hori justifikatzeko arrazoia soila da, baina konplexua ere bai, aldi berean: heriotza goiztiarrak prebenitzea eta zirkulazio istripuetan izaten diren zauritu larrien zerrenda amaiezina geldiaraztea. Hezkuntza komunitate

osoak bultzada handia eman diezaioke gure ahaleginari, eta asmo handiko dema honetan elkarlanean aritu gaitezke.

Horretarako, curriculumeko arlo bakoitzeko berriazko edukiak prebentzioaren ikuspegitik ikasgelan inplementatzeko aukera ematen duten jarduerak proposatzen ditugu.

Zu ere hezkuntzako eragile zarenez, funtsezkoa da zirkulazio istripuen epidemia isila errotik kentzeko demara egin dezakezun ekarpena. Eskerrik asko, aldeztu aurretik, jarduera hauetara hurbildu eta ikasgelan gauzatzeagatik.



HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



AURKIBIDEA

Zirkulazio istripuak: benetako arazoa, benetakoegia. [4]

Mugikortasun segururako hezkuntza: prebentziorako tresna. [5]

Mugikortasun segurua Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntzako curriculumean. [6]

LEHEN ZIKLOA

Gaiari loturiko curriculumeko jarduerak eta edukiak. [9]

Gaiari loturiko mugikortasun segururako jarduerak eta gaitasunak. [11]

JARDUERAK

1 Los bidegorris. [12]

2 Arreta neurtzeko testa. [14]

3 Zer egingo du? [18]

4 Superheroia naiz. [22]

5 Nik ez dut nahi [23]

BIGARREN ZIKLOA

Gaiari loturiko curriculumeko jarduerak eta edukiak. [29]

Gaiari loturiko mugikortasun segururako jarduerak eta gaitasunak. [32]

JARDUERAK

6 Eulien jauna. [33]

7 Jar dezagun auzia. [38]

8 Argudia dezagun. [41]

9 Jakinaraz dezagun. [42]

10 Nola eragiten diguten. [43]

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza




ZIRKULAZIO ISTRIPUAK: BENETAKO ARAZOA, BENETAKOEGIA

Garapenerako gure gizarte eredu motordun ibilgailuen erabilerari lotuta izan da, historian. Hazi eta hazi ari dira, etengabe, bai ibilgailuen kopurua bai urtean egindako kilometro kopurua eta errepideak ere. Mugikortasuna areagotu izanak ondorio negatiboak ere eragin ditu: kutsadura, auto ilarak eta, batez ere, zirkulazio istripuak. Hain zuzen ere, azken horiek tragedia amaigabea izaten dira, eta herrialde industrializatuetan 14 eta 29 urte bitarteko biztanle gehien istripuen ondorioz hiltzen da.

Gizartea gero eta jakitunago da zirkulazio istripuek eragiten dituzten biktimen kopurua murriztu beharra dagoela. Zirkulazio istripuetan hiltzen eta zauritzen direnen tasek behera egin dute pixkanaka gure inguruan; baina, hala ere, hilen eta zaurituen kopuruak epidemia batek eragindakoak adina dira oraindik. Eta, gainera, ezin dugu ahaztu zirkulazio istripuen biktima zuzenez gain, istripuen ondorioak zeharka jasaten dituzten pertsonak ere badirela: istripu larri bakoitzaren atzean, heriotza bakoitzaren atzean, familia tragedia bat dago.

Honako galdera hau egiten diogu geure buruari: nola saihestu zirkulazio istripuak? Ez dago erantzun errazik, jakina, ez eta istripuak berak bakarrik saihestuko dituen ezer ere. Hala ere, guztiok onartzen dugu *giza faktorea* dela zirkulazio istripu gehienen atzean dagoena.



Giza faktorea deritzon horren ikuspegitik, arriskutsu direla hautematen ditugun egoerak saihestera eramango gaituen jokabide edo portaeratzat jotzen da prebentzioa; edo baldin arriskua errealitate bihurtzen bada, haren ondorioak murriztuko direla ziurtatuko duten jokaerak hartzea izango da.

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



MUGIKORTASUN SEGURURAKO HEZKUNTZA: PREBENTZIORAKO TRESNA

Benetan prebenitzeko, arriskua ezagutu, hauteman eta saihesteko nahia izan behar dugu.

Prebentziorako gure hezkuntza eredua *"Mugikortasun segururako hezkuntza. Gaitasunen gida"*¹ izeneko dokumentuan jaso dugu.

Gidaliburu horretan hezkuntza ibilbide osoa zehaztu da, eta honako galdera hauei erantzutea du helburu: *zer, nola eta noiz hezi mugikortasun seguruan*. Ez da soilik ikastetxeetan erabiltzeko gidaliburua. Pertsonak, bizitza osoan, zirkulazio istripuak saihesteko edo istripuen ondorioak txikiagotzeko behar dituzten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak definitu dira.

Mugikortasun segururako oinarritzko zazpi gaitasun zehaztu dira gidaliburuan:

Arreta

Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia

Ingurunearen azterketa

Taldeko presioarekiko erresistentzia

Egokitzapena eta malgutasuna

Neure burua eta nire emozioak kudeatzea

Bideari lotutako egoeretan estresa kudeatzea



¹ Herrizaingo Saila (2008). *Mugikortasun Segururako Hezkuntza – Konpetentzien gida*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



MUGIKORTASUN SEGURUA EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA ETA ATZERRIKO HIZKUNTZAKO CURRICULUMEAN

Derrigorrezko Hezkuntzaren xedea da pertsonaren alderdi intelektuala, afektiboa eta soziala era oso eta harmonikoan garatzea. Garapen horretan, funtsezko osagaiak dira hizkuntza eta literatura hezkuntza, gizarte jardueraren eta norberaren jardueren askotariko eremuetan hizkuntza erabiltzeko gaitasuntzat hartuta, baina baita literaturako testu esanguratsuak behar bezala irakurtzeko beharrezko gaitasun eta trebetasun multzotzat ere ².

Zer dute erkide hizkuntzak ikasteak eta mugikortasun segururako hezkuntzak?

1. BALIOAK

*Hizkuntzak inplikazio estua du pertsonon bizitza afektiboan eta kognitiboan. Sentimenduak ordenatzen ditu, eta bizitzako zein arlo akademikoko edozein ikasketetarako bitarteko nagusia da; izan ere, eskarmentua, hitzen bidez adierazten denez, eraldatu egiten da eta beste maila batera igarotzen da. Horregatik, hizkuntza menderatzeak berekin dakar tresna egokiak izatea norberaren barrena hobeto sartzeko, norberaren burua kokatzeko **ingurukoekiko harremana kontuan hartuta, bizikidetzaren arautzeko, lankidetzan aritzeko eta modu kritikoa eta autonomoan** ikasteko.*

² Ondorengo aipuak hitzez hitz hartu ditugu dekretu hone-tatik: 175/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa.
V. eranskina: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arloak: EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA, ATZERRIKO HIZKUNTZA.

Mugikortasun segururako hezkuntza zirkulazio istripuak murrizteko eta istripuen larritasuna arintzeko estrategiatzat jotzen dugu, eta helburu du pertsona elementu aktibo izatea istripuen prebentzioan. Horretarako, garrantzitsua da pertsonok geure kabuz moldatzeko dugun gaitasuna (autonomia) espazio komunetan ibiltzen garenean eta, beraz, bidean gurekin batera dabilzan pertsonen elkarrekin eta errespetuan (bizikidetzan).

2. TREBETASUNAK ETA EGITEN JAKITEA

Hizkuntza alderdi gakoak da gizakion garapenean, gizabanako gisa zein gizartearen dugun garapenean. Gizabanako gisa dugun garapenean, gizabanako bakoitzari pentsatzea, bere ezagutza eraldatzea, bere jardueraren arautzea eta adieraztea ahalbidetzen diolako da funtsezko. Eta, gizartearen izaten dugun garapenean, gizartearen bidez transmititu eta mantentzen delako, baina ez horregatik bakarrik; gizaki taldeak hizkuntza ardatz eta euskarri duen jardueraren gainean eratzen eta garatzen direlako ere bai. Kultura ere hizkuntzaren bitartez sortzen eta transmititzen da, eta huraxe du oinarri.

Mugikortasun segururako hezkuntza. Gaitasunen gida izeneko dokumentuan jaso dugun istripuak prebenitzeko hezkuntza

ereduan, behin eta berriro aipatzen da gizabanako ororen gizarte garapenean eta norberaren garapenean «egiten jakitea», eta ikasleekin lantzeko proposatzen dituen gaitasun guztiak erraz lot daitezke hizkuntza trebetasunekin.

Hizkuntzak, ezagutza finkatu eta gordetzeaz gain, aukera ematen du ezagutza horretara modu sistematikoan eta behin eta berriz jotzeko, eta bere laguntza gabe ezinezkoak diren erlazioak ezartzeko. Bestelako munduak aurkitzea eta autogogoeta egitea ahalbidetzen du, eta ezagutza autonomorako giltza eskaintzen digu.

Esate baterako, «Neure burua eta nire emozioak kudeatzea» izeneko gaitasunak bidea ematen du barne egoerez jabetzeko, bide arriskuak ekar ditzaketela ohartzeko eta barne bizitzara hurbiltzeko norberaren burua entzutearen bitartez. Hori oinarritzat hartuta sortu dira jarduerak, eta, jardueraren bidez, ikasleak honako hauek landuko dituzte: ekimena, jendaurrean gauzak argi adierazteko konfiantza eta bere ideiak defendatzeko argudiatze trebetasuna eta besteen kritikak entzuteko gaitasuna. Jarduera horiek, gainera, eduki interesgarria eta balio linguistikoa dute.

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



3. HELBURUAK

Hizkuntza arloko helburuetan metagaitasunak aipatzen dira; alegia, edozein eduki interpretatzeko eta partekatzeko balio duten gaitasunak. Jakina da irakasle bakoitzak, programazioa egiteko orduan, literaturako testu edo eduki bat edo beste bat aukeratu behar duela eta, egiazki, ez da hain garrantzitsua bata ala bestea hautatzea, baizik eta honako helburu linguistiko hauek betetzea, besteak beste:

1. *Hizkuntzaren hainbat erabilera eremutatik datoen ahozko eta idatzizko hitzaldiak ulertzea; eta halakoak jarrera kritikoz interpretatzea, hitzaldi horietan ulertutakoa komunikazio egoera berrietan aplikatzeko.*
2. *Hitzez eta idatziz modu egoki, koherente eta zuzenean adieraztea eta elkarri eragitea, begirunezko eta lankidetzako jarrera hartuta, kontuan izanik komunikazio egoera bakoitzaren ezaugarriak eta hizkuntzaren alderdi arauemaileak, hainbat komunikazio beharri eraginkortasunez erantzuteko.*
5. *Hizkuntzen erabileraz gogoeta egitea, hainbat gizarte nahiz kultura inguruetan egoki komunikatzea ahalbidetuko duten estrategia eraginkorrak hartzearen, balio judizioak dakartzaten hizkuntza estereotipoak saihestuta.*

Dokumentu honetan proposatu ditugun jarduera guztiek lotura zuzena dute helburu horietako batzuekin.

4. PARTE-HARTZEKO METODOLOGIA

Gizarte jardueraren esparru esanguratsuetan hitz egiteko, idatzeko, entzuteko eta irakurtzeko trebetasunek eta estrategiek osatzen dute curriculumaren ardatza. Trebetasun horiei loturiko ikaskuntzak eduki multzoetako hirutan jaso dira: 1. «Ahozko komunikazioa: hitz egin, entzun eta elkarriketan aritu». 2. «Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi». 3. «Literatura hezkuntza».

Hizkuntzetako curriculum hainbat hizkuntzatan komunikatzeko gaitasunaren garapena ardatz hartuta planteatzen denez, beharrezkoa da ikasgela ikasleei benetan parte hartzen lagunduko dien espazio bihurtzea.

Dokumentu honetan proposatu ditugun jardueren helburua da kidekoen arteko trukea eta elkarriketa bultzatzea; eta, horretarako, zirkulazioari loturiko edukiak baliatuko dira. Mugikortasuna egunerokotasuneko kontua dugu eta, beraz, interes ardatzetako bat da guztiontzat.

Mugikortasun segururako hezkuntza jarduerak hizkuntza eta literatura hezkuntzaren garapenean integratzen dira, hizkuntzak direlako bitarteko bakarra argudiatzeko, gogoeta egiteko, arriskuaz hitz egiteko, arriskua nola ulertzen dugun adierazteko, esperientzia esanguratsuak azaltzeko, eztabaidatzeko eta iritziak eta ikuspuntuak alderatzeko. Horrenbestez, ikasleekin egingo den lanak bi alderdietan lagunduko du, eta koherente eta eraginkorra izango da bi irakasgaietarako.

5. EDUKIAK

Dokumentu honetan proposatu ditugun jarduerak aukera ematen dute gai edo arazo bati buruzko iritzi antagonikoak dituztenen artean eztabaida egiteko, entzuteko eta hitz egiteko txandak gordetzeko. Jarduerak eurak kidekoen artean ikasteko tresna dira, eta hizkuntzekin lan egiteko eta mugikortasun segururako hezkuntzan lan egiteko bidea ematen dute, era berean.

Jarduerak curriculumeko 1. eta 2. eduki multzoetan sartzen dira, batez ere:

- 1. eduki multzoa: Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarriketan aritu. Eduki multzo honetako jarduerak bidea

ematen dute: parte hartzeko, ikasleek iritziak parteka ditzaten eta iritziok argudiatuz justifika ditzaten; gauzak argi adierazte aldera interesa agertzeko; komunikazio elkarrekintzako oinarriko arauak betetzeko; eta entzutearen, entzuten jakitearen eta informazioak balioztatzearen helburuari egokitzen zaizkion informazioak identifikatu eta hautatzearen garrantzia nabarmentzeko ere.

- 2. eduki multzoa: irakurri eta idatzi. Jarduera horiek honako hauek lantzen laguntzen dute: idatzizko komunikazioa; datu soilak interpretatzen; ozenki irakurtzen, ahoskera eta erritmo egokiekin; eta nork bere testuak ekoizten, abiapuntutzat hartuta zirkulazio istripu interesgarriei buruzko benetako albisteen eta kasuen analisia, istripuak zerk eragin dituen aztertzeko.

Azkenik, jardueraren bat 3. eduki multzoan sartu da (3. eduki multzoa: literatura hezkuntza); jarduera horietan parte-hartzaileen adinera egokitutako bide hezkuntzari buruzko testuak irakurriko dira.

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza





LEHEN ZIKLOA



LEHEN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO CURRICULUMEKO JARDUERAK ETA EDUKIAK

CURRICULUMEKO EDUKIAK

JARDUERAK

1. EDUKI MULTZOA. AHOZKO KOMUNIKAZIOA: ENTZUN, HITZ EGIN ETA ELKARRIZKETAN ARITU

IKASTURTEA: 1.A	IKASTURTEA: 2.A	1	2	3	4	5
Ikasgela barruan eta ikastetxean gizarte harremana eratzeke helburua duten ahozko eta ikus-entzunezko interakzioetan parte hartzea.						●
Testuak ulertu eta idazteko, eta era guztietako egoeretan komunikazio prozesuez gogoeta egiteko elkarrizketetan parte hartzea.		●	●		●	●
Aktiboki parte hartzea curriculum zereginetan berezko diren komunikazio egoeretan, bereziki ikasketa jarduerak antolatu eta kudeatzeko; informazioa bilatu eta ematean; azalpenak eskatzean; taldeko lanaren lankidetzan; eta egindako jardueren azken adierazpenean.		●	●	●	●	
Elkarrekintza balioestea, ezagueren eta ideien kontzientzia hartuz joateko bitartekotzat, eta edozein ikasketa prozesuk berezko dituen ulertze eta adierazte prozesuak erregulatzeko, hala banakako jardueretan nola lankidetzako lanetan.		●	●	●	●	●
Elkarrekintza balioestea, norberaren eta besteren sentimenduen kontzientzia izateko bitartekotzat, eta jokabidea erregulatzeko.				●		●
Elkarrekintzak hasten, iraunarazten eta bukatzen laguntzen duten komunikazio estrategiak erabiltzea.		●	●	●	●	●
Eguneroko bizitzako nahiz bizitza akademikoko ahozko eta ikus-entzunezko testuetan, eta ikasleen esperientziari hurbilekoak zaizkion gizarte eremuetakoetan, informazio nabarmenenak ulertzea. Arreta berezia eskainiko zaie narrazio testuei, azalpen laburrei, jarraibideei, esplikazioei eta elkarrizketei.	Eguneroko bizitzako nahiz bizitza akademikoko ahozko eta ikus-entzunezko testuetan, eta ikasleen esperientziari hurbilekoak zaizkion gizarte eremuetakoetan, informazio nabarmenenak ulertzea. Arreta berezia eskainiko zaie narrazio testuei, egitura bakuneko azalpenezko testuei, jarraibideei, argudio bakunei eta elkarrizketei.	●	●	●	●	●
Entzute helburuari —entzuten jakiteari— egokitzen zaizkion informazioak identifikatu eta hautatzea.	Entzute helburuari —informazioak entzuten eta balioztatzen jakiteari— egokitzen zaizkion informazioak identifikatu eta hautatzea.	●	●	●	●	●
Entzute prozesuan informazioa erregistratzeko hainbat bitarteko erabiltzea (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdeketa..).		●				
Igortzailearen asmoa ezagutzea, landutako testuetan esplizitu dauden testuinguru elementuetatik abiatuta.						●
Ahozko mezuetako komunikazio egitura identifikatzea: adierazitako ideien ordena eta hierarkia.				●		●
Ahozko testuaren edukia planifikatzea, aurretik komunikazio egoeraren ezaugarriak identifikatuta.				●		
Jarduera akademikoari loturiko edo intereseko gertaerei buruzko gaiak ahoz azaltzea.		●	●	●		
Esperientziari lotutako gertaeren ahozko narrazioa, aurrez prestatutako gidoi bati jarraituz.			●			●
	Ikasleen interesekoak diren gaiak buruzko informazioak modu antolatu eta argian aurkeztea.	●				●
Ahozko elkarrizketarako arauak errespetatuz eta gizarte nahiz komunikazio arauak aplikatuz ahoz ahoskera eta intonazio egokiekin adierazteko interesa.		●	●	●	●	●
Jarrera kritikoak garatzea, era guztietako aurreiritziak inplizituki dakartzaten hizkuntza erabileren aurrean.				●		●
	Lankidetzak eta errespetu jarrera, komunikazio trukeetan.	●	●	●	●	●



CURRICULUMENKO EDUKIAK

JARDUERAK

2. EDUKI MULTZOA. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA: IRAKURRI ETA IDATZI								
IKASTURTEA: 1.A		IKASTURTEA: 2.A		1	2	3	4	5
Ozen irakurtzea, komunikazio egoerari eta haren eginkizunari dagozkion ahoskera, doinuera eta erritmoa baliatuz. Ikus-entzunezko baliabideak erabili ahalko dira (ahotsa erregistratzeko).				●				
Paperezko euskarrian nahiz euskarri digitalean, eta aurrez planifikatuta, askotariko komunikazio asmoak eta hainbat testuinguru dituzten testu idatziak ekoiztea: gutunak, oharak, abisuak, narrazioak eta deskribapenak, kontuan izanik komunikazio egoera, eta egokitasun, kohesio eta zuzentasun maila onargarriarekin adierazita.	Paperezko euskarrian nahiz euskarri digitalean, eta aurrez planifikatuta, eguneroko bizitzan eta ikasleen esperientziaren hurbileko eremuetako gizarte harremanetan berezkoak diren testu idatziak (foroetako parte hartzea, gutunak...) eta eremu akademikoko testu idatziak ekoiztea, bereziki: narrazioak, deskribapenak, gertaeren azalpena, ideia eta kontzeptuak modu soilean esplikatzea, egindako zeregin eta ikasketen txostenak, laburpenak eta argudioak, kontuan izanik komunikazio egoera, eta egokitasun, kohesio eta zuzentasun maila onargarriarekin adierazita.			●				
	Komiki bat egitea, ikono elementuen eginkizuna eta ezaugarriak ulertu eta gero.						●	
Ideiak antolatzen laguntzen duten testu idatziak egituratzean eskema bakunak erabiltzea.				●				
Testuak lagunarteko erregistrora eta erregistro formalera egokitzea, mezuaren komunikazio egoerak eskatutakoaren arabera.	Testuak lagunarteko erregistrora eta erregistro formalera egokitzea.			●				
Testu idatzian puntuazio markak erabiltzea, perpaus antolakuntzari eta testuaren formari loturik (paragrafoak, eta adierazitako ideien banaketa eta antolaketa).							●	
Testua egituratzea, alderdi formalari loturik eta lan idatziak aurkezteko oinarritzko arauak jarraituz.				●			●	
Hala paperezko euskarrian nola euskarri digitalean testu idatziak behar bezala aurkezteko gogoia, erabiltzen diren gramatika, ortografia eta tipografia arauak errespetatuta.				●				
Idazketa balioestea, informazio eta ikasketa iturriztat, norberaren esperientzia, ideia, iritzi eta ezaguerak komunikatzeko modutzat, eta jokabidea arautzeko modutzat.							●	
	Hala paperezko euskarrian nola euskarri digitalean testu idatziak behar bezala aurkezteko gogoia, erabiltzen diren gramatikako, ortografiako, tipografiako eta baliaturiko ikono elementuetako arauak errespetatuta.						●	
	Norberak idatzitako testuak egokitasunari, koherentziari eta zuzentasunari dagokienez berrikustearen garrantzia balioestea.						●	

3. EDUKI MULTZOA. LITERATURA HEZKUNTZA						
IKASTURTEA: 1.A	IKASTURTEA: 2.A	1	2	3	4	5
	Ipuin eta kontakizun laburren irakurketa iruzkindu eta espresiboa; historiaren elementuak, hasierako formak, garapen kronologikoa eta bukaera konparatuz eta erkatuz.				●	
	Beste estetika hizkuntza batzuk irakurri, aztertu eta erabiltzea: komikia.				●	

LEHEN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO JARDUERAK ETA GAITASUNAK

MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK	JARDUERAK				
	1	2	3	4	5
Arreta		●			
Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia	●			●	●
Ingurunearen azterketa	●			●	
Taldeko presioarekiko erresistentzia			●		●
Egokitzapena eta malgutasuna					
Neure burua eta nire emozioak kudeatzea					●

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ● ○




1. JARDUERA BIDEGORRIAK

HELBURUAK

- Bizikletaz zirkulatzeak dakartzan arriskuak balioztatzea.
- Bizikletaz ibiltzeko beharrezko diren prebentzio neurriak ezagutzea.

METODOA

Eztabaidatzea, talde txikian lan egitea, elkarriketa eta behaketa.



NOLA EGIN

Hezitzaileak ikasleei planteatzen die bidegorriei buruzko ikerketa bat egitea, hainbat alditan zatituta egingo dena. Horrenbestez, hainbat egunetan egiteko antola daitekeen jarduera bat da.

1. Taldeko eztabaida.
2. Lana, talde txikian.
3. Behaketa eta elkarriketak.
4. Ondorioak.

Hasieran, **lehenengo aldian**, eztabaida bat irekiko da 3na ikaslek osatutako taldeen artean, txirrinduz ibiltzean izaten diren arriskuei buruz alde zuzenak zer iritzi dituzten eztabaida dezaten. Talde bakoitzeko ikasleetako bati eskatuko zaio oharra jasotzea —idazkari lanak egin ditzala—, egiten diren iruzkinei buruz eta bere taldeak ateratzen dituen ondorioei buruz.

Galderak egin daitezke, hitz eginarazteko. Adibidez:

- Arriskutsua da hirian txirrinduz ibiltzea? Eta errepidean?
- Arriskutsua dela baldin badiote, iker dezatela ea zer arrisku topa ditzaketen.
- Zer babes neurri erabiltzen dituzte bizikletaz ibiltzean?
- Zer deritzete bidegorriei? Nahikoa al daude?

Eztabaidatu eta egindako mintzaldiak laburbildu eta gero, **bigarren aldian** ikasle taldeei eskatuko diegu idatz dezatela kalean egin beharreko elkarriketa baten gidoia, bidegorriei eta bizikletako segurtasunari buruz, aurrez egin dituzten oharra oinarritzat hartuta.

Gidoia bukatutakoan, talde bakoitzaren bozeramaileari eskatuko zaio galderak irakur ditzala. Egoki irizten bada, gidoi bakarra egin daiteke guztien artean, edo talde bakoitzak bere elkarriketa egin dezala.

Hirugarren aldian, landa ikerketa egingo dute: elkarriketak (talde osoak batera egitea gomendatzen da). Horretarako, ikasleei eskatuko zaie prestatu duten gidoiarekin elkarriketa ditzatela zenbati oinezko eta zenbait txirrindulari. Era berean, jokabideei behatzeko erregistro bat banatuko zaie, eta eskatuko zaie txirrinduz doazenen jokabideari behatzeko eta jokabide horri buruzko oharra jasotzeko.

Laugarren eta azken aldian, ikasleei eskatuko zaie esplikatu dezatela zer kontatu dieten eta zer ikusi duten. Eta, azkenik, eztabaida egingo da berriro, lehen faseko iruzkinak azaltu gabe. Egokia da iritzi aldaketak nabarmentzea batez ere.

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarriketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○





BEHAKETAREN ERREGISTROA

Zoaz zure hiriko toki batera, eta jaso itzazu ikusten dituzun jokabideen oharrrak. Marka ezazu X batekin jokabide bat gertatzen den aldiro.

KOKALEKUA

BEHAKETA HASI DEN ORDUA

BEHAKETA BUKATU DEN ORDUA

Page 10

[illegible]

GOGOETARAKO GALDERAK

Zer arrisku daude zuek
zaudeten hiriko toki
horretan?

Zer egin liteke arrisku horiek saihesteko?

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○○



2. JARDUERA


ARRETA NEURTZEKO TESTA

HELBURUAK

- Egunez egunekoan zer arreta mota erabiltzen dugun ohartzea.
- Arretaren eta kontzentrazioaren arteko ezberdintasuna esperimendatzea.
- Arreta txikiagotzen duten jokabideetatik, gure mugikortasunerako arriskutsuak zein diren bereiztea.

METODOA

Talde handian ariketa eta eztabaida egitea, eta talde txikian lana egitea.



NOLA EGIN

Hezitzaileak zirkuluerdian jarriko ditu parte-hartzaileak, guztiek modu erosoan ikus dezaten proiektatuko duen bideoa. (bideoa)

Bideoa jarri aurretik, azalduko die bere garaian Daniel J. Simons-ek Illinoisko Unibertsitatean egindako esperimendu bat egingo dutela.

Hezitzaileak esango die esperimendu horrek gizakiok dugun arreta mantentzeko edo kontzentratzeko ahalmena balioztatzeko balio duela.

Bideoan, parte-hartzaileei adieraziko zaie bi talde agertuko direla: talde bateko kideek elastiko zuria izango dute, eta beste taldekoek elastiko beltza. Talde bereko kideek saskibaloiko baloia pasatuko diote elkarri, alde batetik bestera mugitzen direla. Bideoan ikusiko dutena azaldu eta gero, hezitzaileak honako kontsigna hau emango die:

Arretaz ikusi behar duzue, eta zenbatu zenbat aldiz pasatzen dioten baloia elkarri elastiko zuria duen taldeko kideek. Baina, adi!: talde zurikoak paseak baino ez zenbatu. Esperimendua baliozkoa

izan dadin, bideoa behin bakarrik ikusita zenbatu behar dira paseak.

Zalantzak argituko ditu hezitzaileak, eta bideoa ikusiko dute gero. Bideoa amaitzen denean, hau galdetuko die:

- Zenbat aldiz pasatu diote baloia elkarri? (Hezitzailearentzako oharra: 18 aldiz.)

Talde zuriko kideen artean baloia zenbat aldiz pasatu dioten elkarri argitzen dutenean, hezitzaileak jakinaraziko die badela ebatzi beharreko beste enigma bat:

- Ikusi al duzue atentzioa eman dizuen ezer?

Ezer ikusi ez duten parte-hartzaileak lasaituko ditu hezitzaileak, eta berriz ikusiko dute bideo bera; bigarren ikustaldian, baina, arreta jarri beharko dute pantaila zeharkatu duen animalia ikusteko. Animalia pantaila zeharkatzen ari denean, hezitzaileak klaxon bat joko du (zaratzu samarra), entzuleak izutzeko eta arretarik eza berriz ere agerian uzteko asmoz.

Lehen eta bigarren ikustaldiaren esperientziatik abiatuta, hau galdetuko zaie:

- Zer ezberdintasun dago lehenengo ikustaldiaren eta bigarrenaren artean?

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarriketara aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi
Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○



- Zer ezberdintasun dago kontzentratuta egotearen eta adi egotearen artean? Zer abantaila eta desabantaila dituzte?
- Noiz egon behar da kontzentratuta, eta noiz adi?

Esperientzia osatzearen, eta berriz ere hautematearen garrantzia nabarmentzearen eta gure mugikortasunaren egunerokoan hautematea zein zaila den agerian uztearen, eranskineko ariketak egin daitezke, eztabaidaz gainera.

Lehenengo ariketan, agerian jartzen da zein zaila den ikusten dudaren eta egin behar dudaren arteko kontraesana dakarten elementuak hautematea: kasu honetan kolore bat esatea (kontzeptua), beste kolore batez idatzita dagoena. Eztabaida areago animatu ahal izateko, galdera hauek egin diezazkiekegu:

- Nola eragin diezake fenomeno horrek gure eguneroko joan-etorriari?
- Zerbait egin al dezakegu horrek guri ez eragiteko?

Beren erantzunak arrazoitzen saiatzeko eska diezakegu.

Bigarren ariketan, agerian geratzen da informazioa ezabatzearen fenomenoak, beharbada horixe gertatu baitaigu

bideoan (gorila pasatzen ez ikusi izana, alegia). Beraz, interesgarria litzateke ikasleei galdera hau egitea:

- Zer informazio ezabatu ohi dugu?
- Arriskutsua al da informazio hori ezabatzea?
- Noiz, zehazki?
- Nola ziurta dezakegu guri hori ez gertatzea? Eta saia daitezela beren erantzunak arrazoitzen.

Ondorioa:

Parte-hartzaile gehienak kontzentratuta egongo dira jokalarien paseak zenbatzen, eta, era inkontzientean, haien garunak «beharrezko ez den informazioa» alde batera utziko du. Hori egunero gertatzen zaigu. Ikusmenaren bitartez informazio kopuru handia iristen zaigunez garunera, joera dugu, era inkontzientean, informazio hori gehiago edo gutxiago iragazteko eta soilik beharrezkotzat jotzen duguna prozesatzeko. Gainerakoa alde batera uzten dugu.

Hortik abiatuta, hitz eginaraziko zaie, kalean nola zirkulatu behar dugun edo txirrinduz nola ibili behar dugun: arretarekin edo kontzentrazioarekin? Horretarako, hezitzaileak ikasleak gehienez seina laguneko talde txikietan banatuko ditu, eta eskatuko die aztertze, eztabaidatzeko eta ondorioak ateratzeko, gai hau hartuta:

- Zer arreta-galtzaile aurki ditzakegun, kalean gabiltzala. Identifika eta baliozta ditzatela eskatuko zaie. Adieraziko zaie mintzagaitzat har ditzaketela bai publizitatea eta antzeko elementuak, eta bai eurek dituzten jokabideak, hala nola: kaskoekin musika entzunez joatea, kalea zeharkatzen ari zarela mugikorreko testu mezuak irakurtzea, txirrinduz zoazela telefonoz hitz egitea. Adibide zehatzak aurkitzen saiatzera animatuko ditugu: euren jokabideak, edota besterenak.

Azkenik, parte-hartzaileei proposatuko zaie eztabaida txiki horiek elkarri azaltzeko. Ondorio honetara irits daitezten saiatu behar dugu: arreta galarazten dieten ekintza asko egiten dituztela, eta beren segurtasuna handitu dezaketela etengabe adi ibiliz eta arriskuko jokabide horiek kenduz.

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○





EZTABAIDA OSATZEKO ARIKETAK

1. ARIKETA: JARRAIBIDEAK

Eska iezaiozu parte-hartzaile bati ozen esan ditzala hitz hauek zer kolore dituzten (esanahia ez, baizik eta zer koloreekin idatzita dauden). Esperientzia hainbat pertsonekin errepika daiteke, horietako bakoitzak zailtasuna ikusi eta gero.

urdina

berdea

gorria

horia

urdina

berdea

gorria

horia

berdea

berdea

gorria

urdina



2. ARIKETA. JARRAIBIDEAK

- 1- Parte-hartzaile bakoitzak triangeluan idatzita dagoena irakurriko du, eta orri batean idatziko.
- 2- Hezitzaileak, orduan, erakusgarri gisa eman duen orria kenduko du.
- 3- Hainbat boluntariori beren orrietan zer idatzi duten irakurraraziko die.
- 4- Berriz erakutsiko du irudia, eta eskatuko die konpara dezatela idatzita dagoenarekin, ea hautemate akatsa aurkitzen duten (garunak ez du prozesatzen artikulua femenino bat errepikatuta dagoela).




3. JARDUERA ZER EGINGO DU?

HELBURUAK

- Erabakiak hartzen ditugunean segurtasunari ematen diogun garrantzia balioztatzea.

METODOA

Dilema moralak.



NOLA EGIN

Hezitzaileak dilema bat zer den azalduko die: istorio bat da, bi aukeraren artean erabaki bat hartzera behartzen gaituena, bi aukera besterik ez baita izaten. Bi aukeretakoa bat hautatu behar da; biek balio dute, eta aldeko eta kontrako arrazoiak dituzte.

Dilema zer den azaldu eta gero, hezitzaileak eranskinean jasotako istorioetako bat aukeratuko du, kontatzeko: «Berria taldean» edo «Uda bat Enekorekin». Bukatzean, berriz aipatuko dizkie dauden bi aukerak:

«Berria taldean» dilemarako

- Taldekideek adierazi dioten tokitik zeharkatuko al du errepidea?
- Zeharkatzeko beste aukera bat bilatuko du, nahiz eta taldekideei ez zaiela gustatuko badakien?

«Uda bat Enekorekin» dilemarako

- Taldearekin joaten jarraituko du, beste ezer esan gabe eta arreba etxean utzita?
- Bere arrebak eurekin jarraitzen duela esango dio taldeari?

Ikasleak lerroan jarriko ditu, begiak ixteko eskatuko die (elkarren eraginik izan ez dezaten), eta esango die lehenengo aukeraren alde daudenak jar daitezela bere eskuinaldean, eta bigarren aukeraren alde daudenak bere ezkerraldean.

Bi aukerak sortu direnean, azpitaldeak egingo dira (lau-sei kidekoa bakoitza), bi aukeretan azpitalde kopuru berdintsua izan dadin saiatuz.

Azpitalde bakoitzak bere aukera hautatzeko izan dituen arrazoiak gainean gogoeta egingo du. Azpitalde bakoitzeko bozeramaileak beren arrazoiak azalduko dizkio talde osoari.

Bozeramaile guztiek azalpenak eman eta gero, eztabaida egingo dute talde handian, eta parte-hartzaile bakoitzak arrazoiak alde edo kontrako iritzia emateko aukera izango du.

Eztabaidan, parte-hartzaileetako edozein lekuz alda daiteke, baldin iritzia aldatzen badu. Hezitzaileak neutral izan beharko du, eta dilema ebatzi gabe utzi beharko du saioa amaitzen denean.

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin
eta elkarrizketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi


Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○





Oskar 12 urteko mutila da. Hirira joan behar izan du, bere ama lanpostuz igo dutelako eta horrek bizilekuz aldatzea zekarrelako. Asko kostatu zaio adiskideei eta jaioterriari agur esatea. Gurasoek esan diote aldaketak aukera ugari ekarriko dizkiola: adibidez, bestelako jende asko ezagutuko duela, eta dibertigarria izango dela adiskide berriak egitea.

Pozik dago bere etxe berriarekin. Izan ere, gela handiagoa du, bere anaia nagusi Bitorri irabazi baitio zozketan.

Bi anaiak eskola berera doaz. Oso eskola handia da, jende asko dago, eta eskola ona dela dirudi.

Lehenengo eskola egunean, Oskar pixka bat tokiz kanpo sentitu zen: ikasgelara sartzean, konturatu zen denek elkar ezagutzen zutela jadanik... guztiak adiskideak ziren txikitatik, eta bera zen ikasle berri bakarra. Bere kide guzti-guztiei begiratu ziren. Oso pozik ari ziren udari buruz eta oporraldian egindako gauza guztiei buruz hizketan, baina inork ez zion kasurik egiten, inor ez zen konturatu bera han zegoela, harik eta irakasleak atea itxi zuen arte, danbatekoa eginez, denen arretea erakartzeko.

Ene! Irakaslea ondoan zuen, eta horrenbestez 24 neska-mutilek finko begiratzen zioten. Une hartan arras lotsatu zen, aurpegia gorritu zitzaion, begiak zoruari begira jarri zitzaizkion, eta pentsamendu hau zerabilen: lurrak irentsiko ahal nau!

Orduan, zurrumurrua entzun zuen neska-mutilen artean, ea bera nor zen galdezka... eta halako batean irakasleak ahotsa goratu eta esan zuen: «Egun on! Eser gaitezen, mesedez.»

Bat-batean, denak zeuden eserita, Oskar izan ezik. Oskarrek zutik jarraitzen zuen, atearen ondoan, zerbaitek esertzea eragotziko balio bezala... Irakasleak begiratu egin zion, eta esan zuen: «Zer duzu?» *Hor geratuko zara?»*

Zalaparta handia sortu zen gela osoan, txoro barrekin. Iskanbilaren erdian, Oskarrek ahots lotsati bat entzun zuen: «Zatoz, eser zaitez hemen. Hutsik dago.»

Oskar, inori begiratu gabe, ahotsarengana joan zen, eta eseri egin zen. Ondoan, mutil lodikote batek, oso betaurreko lodiekin, irribarre egiten zion.

Eskola hasi zen, eta halaxe joan ziren egunak: ikasgelan sartzen zen eta Beñat ikaskidearen ondoan esertzen zen. Beñat baitzen eskua luzatu zion bakarra, larri ibili zen hartan. Beñat oso mutil arduratsua zen, oso barnerakoa, zaila zitzaion adiskideak egitea.

Egun batean, atsedenaldira, Beñatekin hizketan ari zela, galdetu zion ea zer egin zezakeen eskolan jende gehiago ezagutzeko. Beñatek txutxu-mutxu guztiak kontatzen zizkion. Nabari zen guztiak ondo baino hobeto ezagutzen zituela. Eskolako taldetxo guztien aitzin-gibelak zekizkien. Beñatek esaten zuen oso zaila zela talde batzuekin egotea, nekez onartzen zutela inor.

Oskarrek ez zuen jende gehiago ezagutzeko aukerarik galdu nahi izan. Bere ikasgelako liderretako bat izana zen, ez zuen konformatu nahi adiskide bakarra izatearekin.

Halaxe, egun batean, atsedenaldira, futbolearen aritzen ziren taldeetako batera inguratu zen,

eta eurekin jolasten uzteko eskatu zien. Gogo txarrez, baietz esan zioten, baina atezain jokatu zuela, ea ondo jokatzaren zuek ala ez ikusi arte... Egun gutxi egin zituen atezain, azkenean benetako «Messi» bat zela erakutsi baitzuen: golak dozenaka sartzen zituen pitxitxi bat... Aurkikuntza handia izan zen hura. Atsedendian, taldekideen zozketa egitean, denak Oskar beren talderako eskatzen hasi ziren. Pixkanaka, gainerako ikaskideek onartu egin zuten.

Behin, Beñat bere adiskide ezin bananduzkoarekin eskolatik irtetean, bizkar zorrotik ogitartekoa ateratzen ari zirenean, etxerantz abiatzekotan, ahots batek atzetik deitu zion: «Oskar, gurekin etorri nahi duzu gure toki sekretura?»

Oskar zur eta lur geratu zen proposamen harekin. Pozik zegoen, eta toki itzel hura zer ote zen jakiteko irrikatan. Beraz, ez zuen segundo batez ere dudarik egin proposamena onartzeko. Hala ere, lehenago taldeari eskatu zion Beñati ere joaten uzteko.

Batzartxo eginda, laster onartu zuten biak etortzea, baina aurretik hitz emanarazi zieten inori ez ziotela kontatuko arratsalde hartan ikusitakoa.

Hartara, ikasgelako taldetxorik hoberenari batu zitzaizkion. Onenak ziren. Oskarrek eta Beñatek ezin zuten sinetsi neska-mutiko haiek eurekin beren sekretua partekatu nahi izatea.

Jokaldiaz hitz egiten hasi ziren, eta Oskar toki hari buruz gehixeago jakiten saiatu zen.

Besteek arrastoak ematen zizkioten, esaten zioten ausartentzako beste inorentzako ez zela toki hura, inori ezingo ziola toki hari buruz hitz egin, han eurak zirela jabeak, araurik ez zegoela, inork ez ziela esaten zer egin behar zuten edo zer ez zuten egin behar...

Oskarrek eta Beñatek elkarri begiratu zioten, iristeko irrikaz. Bidea bihurri samarra zen, eta, une batean, begiak estalarazi ere egin zizkieten, nondik zihoazen jakin ez zezaten.

Egia esatera, pixka bat galduta zebiltzan. Begi-mozorroa kendu zieten, zirkulazio handi samarreko errepide baten aurrean zeuden. Beste aldean, zuhaitzez betetako bidearte bat zegoen. Batek esan zien: «Heldu gara. Hor dago, errepidearen bestaldean.»

Oskarrek eta Beñatek elkarri begiratu zioten, zer esan ez zekitela. Auto ugari igarotzen ziren, abiadura handian. Beraz, Oskarrek galdetu zuen:

- Hemendik zeharkatu behar dugu? Ez al dago semafororik edo zeharkatzeko seguruagoa den beste tokirik?
- Ez zara oiloa izango, ala? —erantzun zion berehala taldeko kideetako batek—. Guk honaino ekarri zaitugu, eta zuk zer eta zebra pasagunetxo batetik joan nahi duzu!

Eta beste batek esan zuen:

- Orain kikildu egingo zara? Gure sekretua partekatu nahi baduzu, hemendik pasatu beharko duzu, ez dago pasatzeko beste tokirik... Hau da proba erabakigarria. Ausarta

izan behar duzu haraino iristeko. Zeharkatu egin behar duzu, gure klanean onartzea merezi duzula erakusteko.

Beñatek Oskarri begiratu zion, eta lasterka abiatu zen. Orduan, balaztaketa bat eta arriskuaz ohartarazten zion klaxonen bat entzun zen... Zortea izan zuen, mirariz kalterik gabe heldu zen beste aldera. Baina berak zorte berdina izango ote zuen? Uste zuen Beñat bere ondoan geratuko zela, harrituta zegoen zein azkar jokatu zuen, pentsatu ere egin gabe...

Oskar toki berera iristeko aukerak bilatzen hasi zen, pasabide goratu bat ikusi zuen harago, eta bere buruari galdetu zion ea handik iritsi ahal izango zen... Hain urrutia ere ez zegoen. Konbentzitu ote zituen aukerarik onena zela?

Buruari bueltak ematen ari zela, taldeko ahotsak entzuten zituen:

- Jakin izan bagenu, ez zintugun gonbidatuko, iruditzen zait ez duzula gure sekretua jakitea merezi.
- Tira, Oskar, edo orain zeharkatzen duzu, edo dagoeneko alferrik izango duzu zeharkatzea!


Zer egingo du Oskarrek?

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○





Eneko irrika gorrian dago, eguraldi eguzkitsua noiz iritsiko. Izan ere, uda garaian bera, bere gurasoak eta bere arreba txikia astebururo joaten dira hondartzako apartamentu batera.

lazko apartamentu berera doaz aurren, eta han Eneko neska-mutilen talde batekin adiskidetu da. Hasieran ez zen erraza izan adiskideak egitea, baina orain badirudi azkenik talde bateko kide egin dela. Zoratu egiten ditu hondartzara joateak, apartamentuen ondoko zelaian jokatzek, eta egun osoan txirrinuz ibiltzek.

Atzo haren amak ikusi zuen neska-mutilen taldea —tartean Eneko— txirrinuz zihoala kaletik ziztu bizian, espaloian gora eta behera, eta STOP seinaleak errespetatu gabe.

Eneko gurasoenera itzuli zenean, errieta egin zioten, txirrinduarekin kontuz ez ibiltzeagatik. Herria oso lasaia den arren, inoiz ez da jakiten noiz eta non agertuko den autoren bat. Zigor gisa, gurasoek Eneko bere 9 urteko arreba eramatera behartu zuten.

Eneko gaur adiskideekin eta arrebarekin atera da, txirrinduekin hurbileko zelai batera joatea erabaki dute. Adiskideak berehala ziztu bizian pedalei eragiteari ekin diote, herrian barrena kalez kale, zelaiko bidean.

Enekok taldeari jarraitzen dio, eta Enekoari arrebak. Arreba, txikiagoa denez, ez doa hain bizkor, eta atzean geratzen ari da. Taldeak pedalei eragiten segitu du, eta zirkulazioaren kontrako noranzkoan sartu da kale batean, zelaira lasterrago iristearren. Auto bat etorri da, eta taldeak nola edo hala saihestu du.

Enekok bat-batean ikusi du autoa etortzen, ikaratu egin da, baina ez gelditzea erabaki du. Arreba, berriz, kalearen erdian gelditu da, eta autoak brast! galgatu du.

A zer ikara!

Taldea zelaian batu da, eta gertatuari buruz eztabaidatu dute. Taldeko neska liderretako batek esan du:

- *Eneko, gustatzen zaigu zu gurekin etortzea, baina zure arreba txikiegia da. Beste egun batean ez ekarri! Hain da motela, tokietaraino iristen denerako gu bagoaz!*

Beste batek esan dio:

- *Gainera, gurekin ez du zer eginik, ez daki autoak saihesten ere!*

Eta Enekok erantzun du:

- *Baina zirkulazioaren kontrako noranzkoan joan izan ez bazinete, guretzat errazagoa izango zen zuei jarraitzea. Itxaron ere ez gaituzue egin!*

- *Eneko —esan dio berriro neska liderrak—, hauxe da dagoena: edo zu gurekin etorri, edo zu bakarrik gera zaitez zure arrebarekin eta zure txirrinduarekin uda osoan. Zeuk aukeratu!*

4. JARDUERA SUPERHEROIA NAIZ

HELBURUAK

- Eguneroko jokabidean arriskua identifikatzea, eta haren ondorioak balioztatzea.
- Galzoria, arriskua eta zaurgarritasuna kontzeptuak bereiztea eta horien gainean gogoeta egitea.

METODOA

Komiki edo ipuin bat egitea, eta eztabaidatzea.

NOLA EGIN

Hezitzaileak jarduera aurkeztuko du, komiki bat egingo dutela azalduta. Horretarako, erreferentzia esparru bat planteatuko da, istorioa horren barruan sar dezaten.

Eurak superheroi bat dira, superbotere bat dute... ez dute min hartzen ezein egoeratan, inolako minik ez... Era berean, kontuan izan behar dute oso traketsak direla, eta gauza asko gertatzen zaizkie...

Asmatu beharreko istorioa kalean gertatuko da, tokiren baterantz mugituz...

Komikiak bukatutakoan (edo ipuinak, aukera hori eman bazaie), txandaka irakurriko dute. Bakoitzak bere komikia ondokoari pasatuko dio. Hezitzaileak programatu duen adina denbora luza daiteke jarduera.

Bukatu baino lehen, parte-hartzaileei eskatuko zaie irakurritakoaz solas egiteko, eta gogoeta egin dezatela gai hau hartuta:

Zer gertatuko litzateke, inola ere min hartuko ez bagenu?

Zer egoera aurkitu dituzte, min handia hartzeko arriskua ekartzen digutenak?

Benetako ondorioak zein izango lirateke, superheroiak izango ez balira?

Zer egin lezakete eurek, arrisku horiek saihesteko?



Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin
eta elkarrizketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○




5. JARDUERA NIK EZ DUT NAHI

HELBURUAK

- Taldearen presioak ekintza arriskutsuak egitera eraman gaitzakeen egoerak identifikatzea.
- Taldearen presioari eustea ahalbidetzen duten estrategiak ezagutu eta garatzea.
- Besteen nahien arabera jokatzera naramaten emozioei antzematea.

METODOA

Kasua, taldeko eztabaida eta rol jokoa.



NOLA EGIN

Hezitzaileak 1. eranskinean ageri den kasua aurkeztuko du, eta ikasleei horretaz eztabaidatzeko eskatuko die.

- Zer egingo du Mariak? Zer egin nahi du Mariak? (Ikertu ea alderik ikusten duten.)
- Zer arrisku daude? (Arriskurik badagoela uste baldin badute.)
- Zer arazo aurkitu ditu? (Ikus dezatela taldearen aurrean ezetz esatearen zailtasuna.)
- Identifika ditzatela egoera berdinean (segurtasuna eta taldearen presioa, aurrez aurre) egon diren kasuen adibideak.

Behin hori eztabaidatuta, eztabaida gai honetara bideratuko da: norberaren edo besteren arriskuko egoeren aurrean ezetz esatearen zailtasuna.

Hezitzaileak parte-hartzaileei teknika asertiboak aurkeztuko dizkie, beren eskubide pertsonalak estutasunean edo arriskuan jartzen diren egoerei aurre egin ahal izan diezaieten. Hau da, taldearen presioari eutsi ahal izateko eta nork beretzat seguruena dela uste duena defendatu ahal izateko.

Garrantzitsua da parte-hartzaileei EZ esateko ESKUBIDEA dutela ulertzen laguntzea: guztiok dugu zer nahi dugun eta zer nahi ez dugun erabakitzeeko eskubidea, baldin gure erabakiak inori kalte egiten ez badio.

Banatu fotokopia bat, komunikazio asertiboko bi estrategiak azaltzen dituen: esaldia errepikatzea eta lainogunea (**2. eranskina**). Geure iritzia eusteko elkarriketa errazten saiatzen dira, edota guk nahi ez badugu ere besteak egiteko eskatzen diguna egiteko tentazioan eroraz gaitzakeen kritikari ezikusiaarena egiten.

Garrantzitsua da estrategiak konponbide magikotzat ez saltzea. Era berean, garrantzitsua da esplikatzea estrategia horiek presioa txikiagotzen laguntzen dutela, baina funtsezkoa dela enpatia, eta besteen jarduna ez epaitzea. Hartara, geuk nahiago dugunaz hitz egingo dugu:

- *Ulertzen dut ni zuekin txirrinduz kaskorik gabe joatea nahi duzuela, baina nik nahiago dut kaskoa jarri, babestuago sentitzen naizelako.*

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin
eta elkarriketan aritu
Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi
Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○



Orobat, gogobeteko konponbide bat bilatzen saia gaitezke negoziatitok abiatuta, hala nola:

- *Hain toki ilunean ez dut gauez txaleko islatzailerik gabe ibili nahi; egunez joan gaitezke.*

Nabarmendu garrantzitsua dela iritzi eta argudio positiboak ematea. Hobe da «Txirrinduan seguru joan nahi dut» esatea, eta ez «Ez dut arriskuan nabilela sentitu nahi».

Azkenik, eta ikasitakoa praktikan jartzeko, parte-hartzaileei eskatuko zaie erabil ditzatela teknika horiek, rol jokoaren bitartez: Mariaren kasuari amaiera jarriko diote (**1. eranskina**), edo zailtasun hori bera (pertsona bati ezetz esatea) duen eta eurek bizi izan duten beste edozein egoerari. Dagozkien rolak banatuko dituzte, eta antzezpena egingo dute.

Mariaren kasuarekin jarraitzen baldin badugu, garrantzitsua litzateke hainbat boluntario irtetea, adiskideen rola jokatzeko (karrozaren gainean oihuka), eta Jonen rola jokatzeko, Mariaren ondoan eta harekin elkarriketa egiten. Hona hemen elkarriketa adibide bat:

Jon: Goazen, Maria, nik igoko ditut zure anaiak, eta gero zu igoko zaitut.



Maria: Jon, eskerrik asko, baina ez naiz igoko.

Jon: Tira, Maria, igo zaitez, dibertituko gara.

Maria: Benetan, eskerrik asko, baina ez naiz igoko (*esaldia errepikatzearen teknika darabil*).

Jon: Hondatzailea zara!

Maria: Ulertzen dut zuk hori pentsatzea (*lainogunearen teknika*), zuekin joateko gogo handia dut, hala ere uste dut seguruago sentituko naizela hemen nire anaiekin gelditzen banaiz.





INAUTERIETARA JOAN NAHI DUT!

Badator otsaila... Badirudi egunak luzatzen ari direla, eta udazkena inguratzen ari dela... Berotasuna, kalera irteteko gogoa... Eta, nola ez, badatoz inauteriak! Inauteria da neska-mutilek gehien desiratzen duten jaietako bat.

Urtero, Ostegun Gizenean, guztiak herriko plazara joaten dira, bestelako itxura batekin, eta zoramenaren ospakizuna hasteko pregoia irakurtzen du norbaitek. Hala hasten dira kaosaren, dantzen, mozorroen eta barre ugariren egunak. Azkenean, iritsi da gaztetxoek espero zuten unea: larunbat gau handia!

Egun horretan, herriko kaleetan zaintzaile ugari dabil (udaltzainak, ertzainak, Babes Zibilekoak, eta abar), jendearen segurtasuna bermatzeko.

Maria, Pablo, Jon, Marta, Gerardo eta Gurutze ilusioz dabilta, aurten konpartsako protagonistak direlako. Eurek erabaki dute gaia. Modan joango dira, banpiro eta gizotso jantzita! Horretarako, luzaroan pentsatzen aritu dira karrozaren dekorazioan eta beren jantzietan. Bai eta makillajea ere, egiazkotasun handiagoa ematearren. Hain pozik dabilta guztiak!

Inauterietako erregeak dagoeneko irakurri du pregoia, bi egun besterik ez da falta jai handirako.

Hala ere, gauzak ondo joatea eragotziko duen zerbait gertatu da... Mariaren amona erori egin da, eta izterrezurra hautsi du. Gurasoek Mariari esan diote ospitalera joan-etorrian ibiliko direla, eta Mariaren anaiak zaintzeko laguntza beharko dutela. Mariak dagoeneko beste aldi batzuetan umezain lanak egin ditu bere anaiekin, baina larunbat honetan ez du egin nahi, adiskideekin jaiatzeko gozatu nahi du. Gainera, Gurutzek esan dio Jonek irteteko eskatu nahi diola. Bera oso hunkituta dago horrekin, eta ez du pentsatu ere egin nahi jaira ezin joan izateaz.

Luzaroan eztabaidatu eta gero, gurasoek bereari eusten diote, esaten diote egoera ulertu behar duela, lagundu behar duela, eta inori ez zaiola gustatzen gertatu dena.

Maria oso triste eta etsita dago: desfilea, jaia eta Jonekin egoteko aukera galduko ditu.

Larunbat gauean, Maria etxean dago hiru anaiekin. Orduan, adiskideen deia jaso du: lehenbailehen desfilera joatera animatu dute, jantzi dadila eta eraman ditzala anaiak, ez dela ezer gertatuko. Azken batean, gurasoek ez dute jakingo, ospitalean egongo baitira...

Mariak ez du bi aldiz pentsatu. Mozorroto egin da, anaiak makillatu ditu, eta lasterka joan da elkargunera. Desfilea, baina, hasi da dagoeneko... Anaiak oso motelak dira, txikiak dira eta ezin diote Mariaren erritmoari jarraitu... Karrozak aurrerantz doaz, jende piloak dabil. Jonek Maria ikusi du, eta keinu egin dio karrozara igo dadin... Baina poliziak muga batzuk ezarri ditu, eta ezin dira hesiak zeharkatu... Besteek bozkariotan oihu egiten diote goitik, bidea erakutsiz... Jon, bi aldiz pentsatu gabe, karrozatik jaitsi da, Mariari bere anaiekin igotzen laguntzera... Baina Mariak ez du garbi ikusten... Oso arriskutsua da, poliki doazen arren zerbait gerta lekieke bere anaiei, eta orduan errieta bikoitza litzateke.

Adiskideek behin eta berriz deitzen diote goitik, Jonek jadanik besoetan du Mariaren anaia txikia, karrozara igotzeko prest...

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○





ESALDIA ERREPIKATZEA

TEKNIKAREN HELBURUA: Irautea.

Asertibotasunaren arazo handienetako bat da gure nahiak adieraztean ez garela iraunkorrak izateko gai. Teknika honek gure ideien defentsan tematzen lagunduko digu. Askotan, ez dugu jarraitzen argumenturik gabe geratzen garelako, zer esan jakin gabe.

Estrategia honekin, inork gu ez konbentzitzea eta gure hasierako ideiarekin jarraitzea lortzen dugu. Garrantzitsua da eztabaidan ez erortzea, errudun edo ezjakin sentiaraz ez gaitzaten.

PROZESUA:

1. Esaldi labur batekin, gure solaskideari zer esan nahi diogun erabakiko dugu («NIK» motako esaldiak erabiliko ditugu, hau da, argiro adieraziko dut zer nahi dudana).
2. Esaldi hori errepikatuko dugu, berdin dio gure solaskideak zer dioen. Esaldiaren hasieran, «Ulertzen dut...», «Ulertzen dut zer nahi duzun...» esango dugu.

ERABIL DITZAKEGUN ESALDI HASIERAK:

- Beharbada arrazoi izango duzu, baina...
- Hauxe besterik ez dut nahi:...
- Hauxe nahi dut:...
- Oso ondo, baina berriz esango dizut:...

GOGOAN IZAN:

- a) Ez gaude behartuta gure adiskide taldeak guk egitea nahi duena egitera. Batez ere, proposatzen diguten ekintzak gu arriskuan jartzen bagaitu.
- b) Teknika hori beste teknikaren baten laguntzarik gabe erabiltzea ez da komeni, salerosketako elkarrekintzetan izan ezik. Teknika hori bakarrik inoiz ere ez da erabili behar axola digun jendearekin edo hurbileko jendearekin (adiskideak, familiakoak, lagunak...).

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○



LAINOGUNEA

TEKNIKAREN HELBURUA:

Kritikei entzungor egitea.

Elkarrekintzetan, kritikek gaizki sentiarazten gaituzte azkenean, eta gure jarrera berraztertzeraz eramatzen gaituzte. Izan ere, hark edo besteak esaten badu, egia izango da. Barne baieztapen horren aurrean, geure buruari galdetu behar diogu: «Zergatik?».

Asertibotasunak esaten digu geuk epaitu behar dugula geure jokabidea, eta EZ BESTE INORK. Teknika honi esker, entzungor egingo diegu jendearen kritikei, oldarkor izan gabe, ez eta otzan ere, eta (nahi badugu) kritikatzaillearekin harreman onak galdu gabe.

Horrenbestez, eztabaidari ekin gabe edozein kritikaren aukera onartzean datza. Horrek ez du esan nahi gure iritzia aldatuko dugunik: kritika onartu besterik ez dugu egiten, baina amore eman gabe.

ESAN DITZAKEGUN ESALDIAK:

Bai, egia da...

Arrazoi duzu...

Dagoeneko ikusi dut...

Beharbada...

Posible da...

Arrazoi izan dezakezu.



HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○



BIGARREN ZIKLOA

BIGARREN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO CURRICULUMEKO JARDUERAK ETA EDUKIAK

CURRICULUMEKO EDUKIAK

JARDUERAK

1. EDUKI MULTZOA. AHOZKO KOMUNIKAZIOA: ENTZUN, HITZ EGIN ETA ELKARRIZKETAN ARITU		6	7	8	9	10
IKASTURTEA: 3.A	IKASTURTEA: 4.A					
Ikasgela barruan eta ikastetxean gizarte harremana eratzeko helburua duten ahozko eta ikus-entzunezko interakzioetan parte hartzea.		●	●	●	●	
Testuak ulertu eta idazteko, eta era guztietako egoeretan komunikazio prozesuez gogoeta egiteko elkarrizketetan parte hartzea.		●	●		●	
Lan akademikoak antolatu eta kudeatzeko, informazioa bilatu eta azaltzeko, iritzi trukeak egiteko, eta ondorio nahiz ikaskuntzak azaltzeko behar diren ahozko eta ikus-entzunezko elkarrekintzetan aktiboki parte hartzea.	Arlo akademikoak berezko dituen elkarrizketetan eta ahozko komunikazio egoeretan aktiboki eta kritikoki parte hartzea; bereziki, Lan akademikoak kudeatzeko (plangintza, segimendua, ebaluazioa eta azken txostena), informazioa bilatu eta azaltzeko, iritzi trukeak egiteko, eta ondorio nahiz ikaskuntzak azaltzeko behar direnetan.	●	●	●	●	●
Elkarrekintza balioestea, ezagueren eta ideien kontzientzia hartuz joateko bitartekotzat, eta edozein ikasketa prozesuk berezko dituen ulertze eta adierazte prozesuak erregulatzeko, hala banakako jardueretan nola lankidetzako lanetan.		●	●			●
Elkarrekintza balioestea, norberaren eta besteren sentimenduen kontzientzia izateko bitartekotzat, eta jokabidea erregulatzeko.		●	●			●
Gai akademiko edo eskolakoen eztabaidetan gidatuta eta eraginkorki parte hartzea.		●	●	●		
Elkarrekintzak hasten, iraunarazten eta bukatzen laguntzen duten komunikazio estrategiak erabiltzea.			●	●		
Eskola esparrutik datozen ahozko eta ikus-entzunezko testuetan (jarraibideak, ahoz emandako arauak, azalpen laburrak, solasaldiak), eta hedabideetakoetan (gogatzekoak, informatzekoak eta iritzia ematekoak), informazio eta datu nabarmenenak ulertzea.	Hedabideetatik edo eskola esparrutik datozen ahozko eta ikus-entzunezko testuetan (azalpenak, argudioak, solasaldiak...), informazio nahiz datu nabarmenenak eta tesia nahiz argumentuak ulertzea.	●				●
Lankidetzan aritzeko eta errespetu kritikoko jarrera, bestelako iritziekiko, lan partekatuko egoeretan.		●		●	●	●
Ahozko testuak analizatzeko ereduak erabiltzea.			●			
Entzute helburuari egokitzen zaizkion informazioak identifikatu eta hautatzea.	Komunikazio trukeetan esplizitu ez diren elementuak ondorioztatzea: hizlariaren jarrera, mintzaldiaren tonua, umore elementuak, ironia, zentzu bikoitza...		●			●
Ikuspegi pertsonal argudiatua azaltzea.		●	●		●	●
Landutako ahozko testuen eta haien atalen harreman logikoen egitura globala berregitea.			●			
Igortzailearen asmoa ezagutzea, landutako testuetan esplizitu eta inplizitu dauden testuinguru elementuetatik abiatuta.						●
Ahozko mezuetako komunikazio egitura identifikatzea: adierazitako ideien ordena eta hierarkia.		●	●	●	●	●



CURRICULUMENKO EDUKIAK

		JARDUERAK				
IKASTURTEA: 3.A	IKASTURTEA: 4.A	6	7	8	9	10
Ahozko azalpen bakunak, aurrez planifikatuak, ikasleen interesekoak diren gizarte, politika nahiz kultura gaurkotasuneko egintzei buruzkoak.					●	●
Ikasleen interesekoak diren gaiei buruzko informazioak modu antolatu eta argian aurkeztea.	Hainbat ikuspegi onartzen dituzten jardura akademikoari edo gaurkotasunari loturiko gaiei buruzko ahozko azalpenak, aurrez planifikatuak.		●	●	●	●
	Besteren argudiatzei kontra egitea, eta norberarenak berrikustea, ondorioetara iristeko.	●	●	●	●	●
	Entzute helburuari egokitzen zaizkion informazioak identifikatu eta hautatzea.	●	●	●		
Entzute prozesuan informazioa erregistratzeko hainbat bitarteko erabiltzea (apunteak, taulak, grafikoak, eskemak, galdeketa..).		●				
	Solasaldi, elkarrizketa edo eztabaida bateko argudioak eta ondorioak laburbiltzea.	●	●	●	●	●
	Igortzailearen asmoa ezagutzea, landutako testuetan esplizitu eta inplizitu dauden testuinguru elementuetatik abiatuta.					●
	Lankidetzaren laneko egoeretan prozesuen eta emaitzen ardura hartzea eta koebalua egitea.				●	●
Ahozko elkarrekintzarako arauak errespetatuz eta gizarte nahiz komunikazio arauak aplikatuz ahoz ahoskera eta intonazio egokiekin adierazteko interesa.		●	●	●	●	●
Jarrera kritikoak garatzea, era guztietako aurreiritziak inplizituki dakartzaten hizkuntza erabileren aurrean.				●		●
Gogatzera zuzendutako mezuen aurrean jarrera kritikoa izatea; bereziki, gizarte hedabideetatik datozen mezuen aurrean.				●		●
Hizkuntzaren ahozko erabilerak menderatzearen garrantzi pertsonala eta soziala balioestea.				●		

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ●



2. EDUKI MULTZOA. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA: IRAKURRI ETA IDATZI		6	7	8	9	10
IKASTURTEA: 3.A	IKASTURTEA: 4.A					
Ikasleen bizitza akademikoko testu idatziak ulertzea. Arreta eskainiko zaie kontatzeko, deskribatzeko, egintzak azaltzeko, ideia eta kontzeptuak esplikatzen, hezkuntza webguneetako, argudiatzeko eta iritzi arrazoitua adierazteko testuen ezaugarri bereziei.		●	●			
Testuaren zentzu globala identifikatzea eta ideia nagusiak bereiztea.		●	●			
Informazioa eta iritzia, egintzak eta gezurrak bereiztea.					●	
Hainbat erabilera arlotakoak diren hainbat generotako testu idatzien eduki globala laburbiltzea.		●			●	
Publizitatearen gogatzeko funtzioa irakurri, aztertu eta kritikatzeko.	Liburutegiak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu autonomoan erabiltzea, informazioa aurkitzeko, aukeratzeko eta antolatzea.				●	
Askotariko komunikazio asmoak eta hainbat testuinguru dituzten testu idatziak ekoiztea: azalpenetakoak eta kazetaritza generotakoak (albisteak, erreportajeak, elkarrizketak, iritzia).		●	●		●	
Paperezko euskarrian nahiz euskarri digitalean, eta aurrez planifikaturik, bizitza akademikoan berezkoak diren narrazioak, deskribapenak, egintzen azalpenak, ideia eta kontzeptuen esplikazioak eta argudiozko testu idatziak ekoiztea. Liburutegian edo bestelako informazio iturrietan lortu den eta eskemen, fitxen, laburpenen bidez (dagozkion ikono elementuen erabilerarekin) antolatzen den informazioak abiatuta landuko dira testu horiek.	Paperezko euskarrian nahiz euskarri digitalean, eta aurrez planifikaturik, testu idatzi ondo egituratuak ekoiztea, hainbat komunikazio testuingurutatik abiatuta: argudiatzea, lan eta txostenak azaltzea, administrazioak (administrazioari idatzitako gutuna, eskabidea, curriculumak, eskaera gutuna, aurkezpen gutuna, inprimakiak). Betiere, egoera, testu eta euskarri bakoitzari dagozkion arauak errespetatuz.	●	●		●	
Testu idatzien puntuazio markak erabiltzea, perpaus antolakuntzari eta testuaren formari loturik (paragrafoak, eta adierazitako ideien banaketa eta antolaketa).		●			●	
Landutako testu idatzien ulertzea eta ekoizpena erregulatzeko estrategiak kontzienteki erabiltzea.					●	
Idazketa balioestea, informazio eta ikasketa iturritzat, norberaren esperientzia, ideia, iritzi eta ezaguerak komunikatzeko modutzat, eta jokabidea arautzeko modutzat.			●		●	
Testu idatzia menderatzearen garrantzi pertsonala eta sozialaz ohartzea.					●	
Hala paperezko euskarrian nola euskarri digitalean testu idatziak behar bezala aurkezteko gogoia, erabiltzen diren gramatikako, ortografiako, tipografiako eta baliaturiko ikono elementuetako arauak errespetatuta.		●	●		●	
	Gogatzera zuzendutako mezuen aurrean, gogoeta eta kritikazko jarrera izatea; bereziki, gizarte hedabideetatik datozen mezuen aurrean.		●		●	



3. EDUKI MULTZOA. LITERATURA HEZKUNTZA						
IKASTURTEA: 3.A	IKASTURTEA: 4.A	6	7	8	9	10
Literatura testua irakurri baino lehen, irakurtzean eta irakurri eta gero aztertzen eta interpretatzen laguntzen duten estrategiak eta teknikak erabiltzea.		●				
Kontakizun eta eleberrien irakurketa iruzkindua eta espresiboa; pertsonaia eta ahotsa balioztatzea; eta narrazio ikuspegia.	Obren irakurketa iruzkindua eta espresiboa; bestelako narrazio ahotsak eta egiturak eskaintzen dituzten poemak edo zatiak erreztatzea.	●				
Literatura irakurketei buruz norberaren iritziak eta lan soilak ekoiztea.		●				
	Egitura soil eta argudiatuei jarraituz, irakurritako literatura testuei buruzko iruzkin kritikoak ekoiztea, aurrez azterketa gidatua eta planifikazioa eginda.	●				

BIGARREN ZIKLOA GAIARI LOTURIKO MUGIKORTASUN SEGURURAKO JARDUERAK ETA GAITASUNAK

		JARDUERAK				
MUGIKORTASUN SEGURURAKO GAITASUNAK		6	7	8	9	10
Arreta						
Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia			●	●	●	●
Ingurunearen azterketa		●	●	●	●	
Taldeko presioarekiko erresistentzia		●	●			●
Egokitzapena eta malgutasuna		●				
Neure burua eta nire emozioak kudeatzea						●

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ●




6. JARDUERA EULIEN JAUNA

HELBURUAK

- Arauen erabilerari eta baliagarritasunari buruz gogoeta egitea.
- Bizikidetzaz ezagutzea, gure autonomian gidatzen gaituen balioetat.
- Jarduteko eta irizpide propioa bilatzen saiatzeko ditugun arrazoiak balioztatzea.

METODOA

Talde txikian lan egitea eta taldean eztabaidatzea.



NOLA EGIN

Hezitzaileak jarduera aurkeztuko die ikasleei. Ikastaldea 10-15 lagunekoa azpitaldeetan zatituko du.

Gero, eskatuko die erlaxa daitezela eta beren aulkietan begiak itxita eroso eser daitezela, eta hezitzaileak irudikatze batean gidatuko ditu.

Irudikatze hau planteatuko zaie: beren taldeari itsasontzia hondoratu zaio, eta jenderik gabeko uharte bateko hondartzan daude, ertzeraino igeri eginez iritsi eta gero. Uhartea zibilizaziotik urrun dagoenez, zalantzan dabilta, aurki erreskatatuko ote dituzten. Beraz, taldeak erabaki du hurrengo egun edo asteetan elkarrekin bizitzeko antolatzea.

Parte-hartzaileei azpitaldeetan banatu behar dutela aipatuko zaie: janari batzordea, laguntza eskatzeko batzordea, segurtasun eta babes batzordea, kanpaleku batzordea, eta abar. Beharrezko jotzen diren azpitaldeak.

Talde horietako bakoitzak egoki deritzen arauak ezarriko ditu, idatziz. Konparazio batera, janari batzordeak erabaki dezake duten janaria zati berdinetan banatuko dela, salbuespenik gabe. Era berean, inork arauak betetzen ez baditu zer egingo duten idatzi behar dute. Esaterako, nola jokatu duten

inork janari anoa bikoitza jaten badu, edo janaria lapurtzen badu...

Talde bakoitzak bere arauak idatzitakoan, elkarri azalduko dizkiote eta guztien artean iruzkinduko dituzte. Talde guztiek emango dute beren iritzia, ezarritako arauari buruz eta arauak betearazteko pentsatu den moduari buruz.

Garrantzitsua da batzorde bakoitzaren lana konparatzea, proposatu diren irtenbide komunak aurkitzeko. Nabarmendu egingo dira irtenbide horien arteko berdintasunak eta ezberdintasunak, eta, horrenbestez, horietako bakoitzak zer ekarpen egiten duen.

Eztabaidarekin jarraituz, ikasleei galde dakieke ea zer taldetan izan nahi luketen, beren itsasontzia hondoratzeko ezbeharra gertatuko balitzaie. Beren erantzunak argudiatzeko eskatuko diegu. Garrantzitsua da ikustea ea nola erlazionatzen diren hartutako aukera eta talde bakoitzetik proposatutako arau eta antolakuntza mota.

Jarduera bukatzeko, eztabaida bat egin daiteke, arauen beharrari buruz eta gizarteko bizikidetzarako arauak betetzeak duen garrantziari buruz, eta nola arauak seguruago sentitzen laguntzen diguten.

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarriketari aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza



LABURPENA:

- Irudikatzea: itsasontzia hondoratuta, araurik gabeko uharte batera iristea.
- Bizirik irauteko nola antolatuko liratekeen pentsatu behar dute.
- Zer arau mota ezarriko litzukete?
- Zer gertatuko litzateke, inork arauak hautsiko balitu?
- Elkarri azalduko dizkiote antolaketa guztiak.
- Elkarri azalduko diote nola joan den esperientzia, zer aldatuko luketen, zer uhartetan nahiago luketen bizi, eta zeinetan ez.

Jardueraren lagungarri, Eulien jauna filmaren zatiak ikus daitezke, edo liburua irakurri (helburua ahozko ulermena ala irakurmena den) **(ikus 1. eranskina)**.

Filmaren bitartez, zalantzan jar daiteke agintearen jatorria zein den (baliagarritasuna, beldurra...?), eta ea zein den modurik hoberena bizikidetzarako edota helburu komunak lortzeko arauak sortu eta inposatzeko, baita ea arauak eta agintariak beharrezkoak diren ere (2. eta 3. eszenak dira kontzeptu horiek hobekien islatzen dituztenak).

Izan ere, testuko ideia nagusia da gizakiak **ezin duela bizi araurik gabeko gizarte batean**, gizarteko kideen jokabidea arautuko duten legerik gabe. William Goldingek zioenez, gizarte orok agintaritzaren onartu bat behar du, behar bezala funtzionatzeko.

Filma erabiltzen baldin bada, gero konparazioa egin daiteke filmean gertatutakoaren eta taldeetan hartutako erabakien artean **(ikus 2. eranskina)**.

Jarduera bukatzeko, hezitzaileak parte-hartzaileei eskatuko die egin duten esperientzia osoari buruz gogoeta eginda idatz dezatela, 15 edo 20 lerrotan, ea zer gertatuko litzatekeen zirkulazio araurik izango ez balitz.

Boluntario batzuei eska dakieke beren idatziak guztiei azaltzeko, eta hortik abiatuta ikasleen artean izan diren ondorio orokorrak eta partekatuak nabarmenduko dira.




HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○





FITXA TEKNIKOA

JATORRIZKO IZENBURUA: Lord of the flies.

URTEA: 1990.

IRAUPENA: 90 minutu

HERRIALDEA: Estatu Batuak.

ZUZENDARIA: Harry Hook.

GIDOIA: Sara Schiff (Eleberria: William Golding, 1954).

MUSIKA: Philippe Sarde.

ARGAZKIAK: Martin Fuhrer.

AKTOREAK: Balthazar Getty (Ralph), Chris Furrh (Jack), Danuel Pipoly (Porky), Andrew Taft (Sam), Edward Taft (Eric).

EKOIZLEA: Castle Rock Entertainment.

SINOPSISIA

II. Mundu Gerran, hegazkin batek lurra jo du paradisuazko uharte batean. Hegazkinak dozenaka britainiar haur garraiatzen zituen, sei eta hamabi urte bitartekoak. Istripu hartatik heldu bat ere ez zen bizirik atera. Horrenbestez, haurrek beren kabuz atera behar izan zuten bizimodua, eta behin-behineko gizarte bat ezarri, helduak erreskatatzera noiz etorriko ziren zain.

Haurrak antolatu egin ziren, jana bilatzeko, eta ikusiak eta erreskatatuak izateko aukera ematen zien sua piztuta izateko.

Egunak joan, egunak etorri, euren artean liskarrak izaten hasi ziren. Taldea bitan zatitu zen, eta elkarren aurka borrokatuko ziren gero eta bortizkeria handiagoz.

PERTSONAIA NAGUSIAK

Ralph: «zintzoa», sen onaren ikurra da. Haur nagusietako bat da, hasieran guztiek buruzagitzat hautatu zuten. Taldeari bat eginda eusten saiatzen da, bizikidetza baketsuan, eta euren helburuak lortzeko (bizirik irautea eta erreskatatuak izatea) lan egiten.

Jack: «gaiztoa», indartsuenaren legearen ikurra da. Lider bilakatuz joaten da, eta baldintzarik gabe jarraitzen diote, erakartzen dituelako edo beldurrarengatik. Bere boterea inposatzen du, indarkeriaren eta terrorearen bitartez.

Porky: «leiala», arrazoimenaren eta elkarriketaren ikurra da. Bere babesa ematen dio Ralphi hasieratik bukaeraraino, eta hitzaren erabilera aldeztu du elkar ulertzeko eta antolatzeko bide egokientzat.

Bikiak (Sam eta Eric): men egitearen ikur dira; beldurraren eta gehienek egiten dutenaren eraginpean jokatzearen ikurra. Taldea bitan zatitzen denean, Ralphekin geratzen dira (ezagunarekin). Jacken taldea handitzen denean eta beldurra sentitzen dutenean, taldez aldatzen dira. Zalantza egiten dute Jacken aginteari buruz, haren gezurrez konturatzen dira, baina beldurragatik haren ondoan jarraitzen dute.

FILMEKO ESZENEN AUKERA

1. ESZENA

1. biltzarra (11. minutua)

Uhartera iritsi eta biharamunean, haurrak hitz egiteko eta antolatzekeo bildu dira. Erabaki dute itsas kurkuilu bat erabiliko dutela biltzeko deia egiteko eta hitza eskatzeko.

Arauak ezarri beharraz hitz egiten dute, buruzagi bat izendatu beharraz, eta horretarako erabili beharreko irizpideez: adina, taldean duten antzinatasuna...?

Aho batez aukeratuko dute Ralph, eta hark hau esaten du: «Garrantzitsuena elkartuta izatea da».

2. ESZENA

2. biltzarra (25. minutua)

Ralph kexu da taldearen aurrean, baten batek bere zereginak egiten ez dituelako eta sua itzali delako. Esan du diziplina behar dutela, arau zorrotzagoak, eta bestela zigorrak ezarriko dituela. Jackek, barre eginez, esan du: «Zertarako balio dute hemen zigorrak? Inoiz ez gaituzte erreskatatuko».

3. ESZENA

Jacken eta Ralphen arteko borroka (38. minutua)

Bi haur, elkarren aurka eztabaidan eta borrokan. Jackek uste du bizirik irautean kontzentratu behar dutela (jateko ehizatu),

noiz erreskatatuko dituzten zain geratu gabe. Banandu egin da, eta haur batzuk harekin joan dira.

Ralph haur txikienekin geratu da.

4. ESZENA

Suaren ondoko dantza (60. minutua)

Ralphen taldean bera eta Porky baizik ez dira geratzen. Gainerako guztiak Jackekin daude, ehizean aritzen dira, aurpegia odolez margotzen dute. Eszena honetan, errituzko dantza moduko bat egiten dute, hondartzan egindako su baten inguruan. Une horretan, Simon agertzen da: Jackek sinetsarazi dien ustezko munstroa kapitaina dela, bizirik dagoela eta haitzulo batean dagoela aurkitu du. Simon lasterka dator hondartzatik, eta Jackek oihu egiten du munstroa dela. Guztiek eraso egiten diote, lantzekin, hiltzen duten arte.

5. ESZENA

Rousseauren inguruko elkarrizketa (66. minutua)

Simon hil eta gero, Ralph eta Porky hizketan ari dira. Porky dio: «Basatiak dirudigu», eta Ralphi kontatzen dio bere aitak esan ziola Rousseau izeneko batek idatzi zuela gizakiak zintzoak direla izatez, eta gizarteak bihurtzen dituela gaizto. Ralph, barre eginez, esan du: «Uste dut aitak adarra jo dizula.»

6. ESZENA

Porkyren heriotza (74. minutua)

Porky negar egiten du, betaurrekoak kendu dizkiotelako etsita, eta esan du: «Helduek egingo lituzketen bezala egin ditugu gauzak. Zergatik atera da guztia honen gaizki?»

Bera eta Ralph Jackekin hitz egitera eta betaurrekoak eskatzera joan dira. Porky berriz ere arrazoimenaren eta elkarrizketaren aldeko alegatua egiten du, eta haurretako batek, goitik, harri bat bota eta hil egiten du.

7. ESZENA

Jack jazartzea eta bukaera (78. minutua)

Talde osoa Ralphen atzetik doa. Ralph, hondartzarantz ihes egiten du lasterka. Harean erortzen da, estatubatuar armadako marine baten oinetan.


Iritsiz doazen gainerako haurrak paralizatuta geratzen dira, eta marineak galdetzen du: «Zer egiten ari zarete, baina», eta Ralph negar egiten du.

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○





1. Laburbildu ezazu, zure hitzekin, filmaren argumentua, eta konpara ezazu zure azpitalde txikiaren esperientziarekin.
2. Aukera itzazu bi pertsonaia, deskriba itzazu zehatz-mehatz (nolakoak diren fisikoki, nola jokatzeko duten, nola hitz egiten duten, nola ikusten dituzten gainerakoek, eta abar), eta saia zaitez ea zuek zure adiskideengan identifikatzen duzun ezaugarriaren bat ba ote duten ikusten.
3. Defini itzazu ondorengo termino hauek, eta filman bila itzazu bakoitzaren adibideak:
 - Agintea.
 - Bizikidetzatza.
 - Gizartea.
 - Arauak.
4. Esplika ezazu zure ustez zergatik bat eginda irautea duten hasieran, eta nola kooperatzen duten. (1. eszena.) Konpara ezazu taldeko barne eztabaidako esperientziarekin: ea kooperatu duten, ea ados jartzeko zailtasunik izan den, ea ikuspuntu guztiak errespetatu diren...
5. Esplika ezazu zer gertatzen den haurrak bi alderditan banatzeko. (2. eta 3. eszenak.)
6. Azter dezagun filmeko azken eszena (7. eszena):
 - Zure ustez zer pentsatu zuen marineak haurrak ikustean?
 - Zure ustez zer pentsatzen ari zen Ralph? Zergatik hasi zen negarrez?
 - Zure ustez zer pentsatzen zuten gainerako haurrek une hartan?
7. Zer uste duzu egingo zenukeela, zu haur horietako bat izango bazina? Konpara ezazu ikasgelan izan duzun esperientziarekin.
8. Aukera ezazu gustatu zaizun edo zirrara eragin dizun eszena bat. Deskriba ezazu zehatz-mehatz, eta arrazoitu zeure aukera.
9. Idatz itzazu 15 edo 20 lerro, filmari buruz zer iritzi duzun azaltzeko. Iradokizun hauek erabil ditzakezu:
 - Esplika ezazu ea bereziki zerbaiti buruz gogoeta eragin dizun.
 - Esplika ezazu ea gairen bati buruz iritzia aldarazi dizun.
 - Esan ezazu ea filmeko zer edo zer aldatuko zenukeen, eta nola aldatuko zenukeen.

7. JARDUERA

JAR DEZAGUN AUZIA

HELBURUAK

- Arrisku portaerak aztertzea eta dakarten arriskua balioztatzea.
- Mugikortasunean dauden arriskuak hautematea.

METODOA

Epaiketa (rol jokoa).



NOLA EGIN

Hezitzaileak parte-hartzaileei dinamika esplikatu die. Epaiketan esku hartzen duten rolak aurkeztuko ditu: epailea, epaimahaikoak, fiskala, abokatu defentsaria eta akusazioa. Rol bat emango zaio parte-hartzaile bakoitzari.

Parte-hartzaileak egokitu zaien rolaren arabera taldekaturako dira, eta kasua antzeztuko dute (**ikus 1. eranskina**). Hezitzaileak epailearen rola egingo du, dinamika koordinatzeko.

Epaileak irekiko du saioa, kasuaren idazkia banatuz eta talde bakoitzari bere esku-hartzeak aztertzen utzita. Beren rola ikasiko dute (**ikus 2. eranskina**).

Talde bakoitzak bere bozeramailea hautatuko du, eta hark jokatu du rola. Hala ere, bozeramaileak (abokatua baldin bada) edonoiz eska dezake bere lekua har dezala bere taldekide batek.

Bozeramaileek txandaka beren argudioak azalduko dituzte. Garrantzitsua da besteei adieraztea har ditzatela argudioen eta haiei emandako erantzunen oharrak.

Hezitzaileak, epailea eta rol jokoa koordinatzailea denez, atsedenaldiak eman ditzake, talde bakoitza berriz elkar dadin eta jarraitu beharreko estrategiak eta argudioak presta ditzaten.

Talde txiki bakoitzaren helburua da akusatu bat errudunestea eta beste bat errugabetzea, bere rolaren irizpideei jarraituz (**ikus 2. eranskina**).

Dagozkien alegazioak egin eta gero, rol jokoa bukatzeko, epaimahaikoen arteko eztabaida izango da: alderdi guztien argudioak entzun eta gero, erruduna nor den erabaki beharko dute.

Gainerako parte-hartzaileek epaimahaikoen eztabaida isilik entzungo dute, eta ematen dituzten argudioen oharrak jasoko dituzte.

Bukaeran, eztabaida orokor bat egin daiteke, ea azken epaiarekin bat datozen ala ez.

38

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin
eta elkarrizketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○





KASUA

ISTORIOAREN PROTAGONISTAK

Adiskide taldea: Jon, Oskar, Pablo, Roberto, Maite, Monika (Oskarren neska laguna), Mamen eta Vanesa

Motozikletaren gidaria

Hasi da ikasturte berria! Taldeko kide guztiak oso pozik daude: azkenean hasi dute bigarren hezkuntza, eta ikastetxez aldatuko dira. Oso ikastetxe polita eta handia da. Eragozpen bakarra da ez dagoela beren herrian: orain, ondoko herrira joan beharko dute, 5 kilometrora. Ez da arazo larria, autobus bat erdiko plazatik abiatzen baita, ordu erdiro, beste herrira; eta gero, gero bat bat haien institutu berriaren aurrean dago.

Gurasoak oso lasai daude garraibidearekin, ikasleak dagoeneko handiak dira, eta badakite joan-etorriak beren kasa egiten.

Ikasturteak aurrera egiten du, eta taldea beti autobus gero gero aurrera elkartzen da, elkarrekin bidaiatzeko.

Egun batean, haletako bati joan-etorriak egiteko beste modu bat bururatu zaio: guztiak txirrituz ibiltzen direnez, ikastetxeraino txirrituz joan litezke. Horrela autobusaren dirua aurreztuko lukete, gero askarian eta elkarrekin zerbait hartzen gastatzeko. Gainera, beranduxeago jaiki ahal izango lukete. Horrek gehienak konbentzitu ditu berehala, eta gainerakoak ere laster konbentzitu dituzte.

Badago oso bide lasai bat, ikastetxe berrira joateko. Basabide batek bi herriak lotzen ditu, errepidetik joan beharrik gabe.

Eta halaxe egiten dute zenbait hilabetez, arazorik gabe... Baina euri garaia heldu da, eta asteburuan atertu gabe egin du euria. Astelehenean, institutura joateko txirrituak hartu dituztenean, basabidea lokatzez beteta aurkitu dute. Zorua ibilgaitz dago, eta lurpeko pasabidea urez erdi estalita...

Dudak eta urduritasuna piztu dira. Hain zuzen ere gaur Gaztelaniako kontrol bat dute, ezin dira berandu iritsi, eta zer egin galdetzen diote beren buruari.

Maitek eta Jonek argi dute. Onena da etxera itzultzea eta gurasoei autoan eramateko eskatzea. Horrela pixka bat berandu helduko dira beharbada, baina helduko dira...

Oskarrek, Vanesak, Pablok eta Robertok azkar erabaki dute hoberena errepidea hartzea dela, eta eskolara lehenbailehen iristearren pedalei eragitea, Gaztelaniako irakasleak arazorik ez jartzeko... Vanesak argudiatu du, gainera, gurasoei autoan eramateko eskatzea hanka sartzea dela, gurasoek agindu bezala autobusean zergatik joaten ari ez diren esplikatu beharko luketelako.

Monikak arrazoi eman die bere mutil lagun Oskarri eta bere adiskide Vanesari. Ez du zigor bikoitza jaso nahi: autobusez ez joateagatik eta kontrolera berandu iristeagatik.

Mamenek azaldu du bere anaia nagusia askotan joaten dela errepidez, eta inoiz ez duela arazorik izan. Esan du poliziak sekula ere ez diela ezer esan horri buruz.

Maitek bizkor erantzun dio errepide estua eta zirkulazio handikoa dela, eta Jonek nabarmendu du gehienek ez daramatela kaskorik, ez eta islatzailerik ere.

Zenbait minutuz eztabaidatu eta gero, badirudi taldeko gehienek argi dutela... errepidetik joatearen aldeko apustua egingo dute... «Azken batean, zer gertatuko da, ba?» esaten diete Maiteri eta Joni.

Maitek ez du bakarrik geratu nahi, azkenean amore ematen du taldearen esanaren aurrean, eta kezka aurpegiarekin begiratzen dio Joni.

Ibilbideari ekin diote, erabakia hartzeko denbora asko behar izan dute, eta beraz bizkor samar joan beharko dute berandu iritsiko ez badira. Batzuetan ilaran doaz, beste batzuetan paraleloan, denak pilotuta... Eta, halako batean, Oskarri brastakoa egin dio bizikletak. Pablo hari erantsita zihoan, eta alde baterantz saihesten saiatzen da; galtzadan sartzen da, eta Maite galtzadan are gehiago sartzea behartzen du. Tamalez, atzetik motozikleta bat agertu da ziztu bizi, eta Maite jo du. Maitek oreka galdu du, eta asfaltora erorita konortea galdu du.

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○





FISKALA

Akusazio publikoa ordezkatzeko du. Haren eginkizunetako bat da ofizioz jardutea, legea urratzen duten egintzen berri duenean, nahiz eta inork salaketarik ez egin.

Akusazioa prestatzeko, iturri guztiak aztertu behar ditu, bai gertaerak eta bai alderdiek aurkez ditzaketen argudioak ezagutzeko.

Bere txanda denean epaimahaiakoei hitz egin behar die, bere argudioen egiatasunaz konbentzitzen saiatzeko, bai eta defentsaren lekuko eta argudioen ahultasunaz konbentzitzeko ere.

Xedea: motorzalea inputatzea.

AKUSAZIO PARTIKULARRA

Fiskalaren jardunetik at, kaltetuen interesak ordezkatzeko ditu. Ez da ezinbestekoa; epaiketa askotan ez dago akusazio partikularrik.

Fiskalak bezala, akusazioa prestatu behar du, eta bere argudioekin epaimahaiakoei konbentzitzen ahalegindu.

Xedea: babesik gabe errepidetik joateko erabakiaren eta ekintzaren eragile gazteak inputatzea, eta gazte horiek Maiteren mediku gastuak edo kalte-ordain bat pagatu dezaten eskatzea.

ABOKATU DEFENTSARIA

Akusatuaren interesak (errugabetasuna) defendatzen ditu. Defentsa prestatzeko, iturri guztiak aztertu behar ditu, bai gertaerak eta bai kontrako alderdiaren argudioak ezagutzeko.

Fiskalak bezala, bere txanda denean epaimahaiakoei hitz egin behar die, bere argudioen egiatasunaz konbentzitzen saiatzeko, bai eta fiskalaren lekuko eta argudioen ahultasunaz konbentzitzeko ere.

Xedea: motorzalea defendatzea, errua Maiteri eta taldeko adiskideei egozte.

EPAIMAHAIAKOAK

Epaimahaiakoei oso adi entzungo dituzte bi alderdiek egindako adierazpen guztiak eta emandako argudio guztiak. Eta, horrenbestez, behar izanez gero, rol guztien alegazioak bukatutakoan argibideak eska ditzakete.

Xedea: alderdiei galdetzea edo argibideak eskatzea, eta azkenean ea erruduna nor den erabakitzeko gogoeta egitea.

EPAILEA

Epaietako buru izatearen eta saioaren zati guztiak zuzentzearen ardura du.

Moderatzaile lanak egiten ditu, hitza ematen dio alderdi bakoitzari, alderdi bakoitzaren jardute denbora mugatzen du, eta kasuari lotuta ez dauden argudioak baztertzen ditu.

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○


3. JARDUERA ARGUDIA DEZAGUN

HELBURUAK

- Bideko jokabideen eta haien ondorioen gainean gogoeta egitea.

METODOA

Eztabaida zuzendua.



NOLA EGIN

Hezitzaileak parte hartzaileei esplikatu die jarduera nagusia dela gai jakin bati buruzko beren ikuspegia eztabaidatu eta argudiatzea. Hezitzaileak esandakoan, posizioa aldatuko dute, eta parte-hartzaile bakoitzak rol berrian sartuta jarraituko du eztabaidatzen.

Eztabaidarako proposatutako gaiak:

1. Txirrinduz ibiltzeko kaskoa nahitaez erabili beharrekoa izan behar litzateke.
2. Txirrinduz edozein tokitatik zirkulatzea baimendu behar litzateke, ez baita ibilgailu motorduna.
3. Alkohola kontsumitzeak ez du eragiten gidatzean.
4. Ez dago arriskurik espaloitik goazenean.

Garrantzitsua da parte-hartzaileek aldeztu duten lehenengo jarrera beren ikuspegiarekin bat datorrena izatea, eta rola aldatutakoan sinesten ez dituzten argudioak eman behar izatea.

Dinamika eraginkorragoa izan dadin, gaiari buruzko elkarren kontrako iritziak dituzten parte-hartzaileen bikoteak eskatuko dira, eta bakoitzak bere jarrera arrazoituko du.

Bikoteen argudioak entzun eta gero, beste ikasleei eskatuko zaie eztabaidetan parte hartzeko eta ondorioak ateratzen saiatzeko.

Horretarako, eztabaia erraztuko dieten galderak egin daitezke:

1. Zer eginkizun ditu kaskoak? Zer ondorio izan ditzake ez jartzeak, istripurik izanez gero? (Funtsezkoa da ikustea istripurik izanez gero ondorioak arintzen dituzten elementuek ere segurtasuna dakartela.)
2. Nola eragingo lioke gidatzeko modu horrek gainerako ibilgailuekiko eta oinezkoekiko bizikidetzari? Uste duzue bakoitza nahi duen tokitik joango balitz istripuak gehitu edo gutxitu egingo lirakekeela? (Eztabaida horren funtsezko elementua araua da, eta arauak bizikidetzara arautzeko ematen duen laguntza.)
3. Zer eragin du alkoholak? Zer ondorio ditu? Alkohola hartu duen gidari baten autora edo motorrera igoko zinateke? (Garrantzitsua da ondoriozta dezatela alkoholak gure pertzepzioa aldarazten duela, eta horregatik gidatzea ez dela segurua alkohola edan bada.)
4. Zer arrisku aurki ditzaket espaloian? (Batzuetan ez dira jabetzen zer arrisku dauden, adibidez garajeetako irteerak.)

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarriketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○



9. JARDUERA JAKINARAZ DEZAGUN

HELBURUAK

- Arrisku egoerak aztertzea eta haien ondorioak balioztatzea.
- Bide segurtasunean taldean eta nork bere aldetik zer rol dugun gogoeta egitea.

METODOA

Talde txikian lan egitea eta taldean eztabaidatzea.



NOLA EGIN

Jar iezaiozu galga plataformak herritarrari eskatzen dio sala ditzala gure mugikortasunaren inguruan gertatzen diren egintzak: ikusgarriak ez diren edo kontraesanean dauden seinaleak; arau urratzeak; errepideetako gunek beltzak... Ideia horri jarraituz, parte-hartzaileei eskatuko diegu talde txikietan azter ditzatela beren auzoko edo ikastetxea dagoen auzoko bide segurtasunari kalte egiten dioten egoerak; eta, gero, idatz diezaietela kexatzeko eta azalpenak emateko gutun formal bat hala Administrazio publikoari (adibidez, herriko alkateari) nola egunkari bati (zuzendariarentzako gutunen atalera).

Ikasleei eskatuko diegu Administrazioari zuzendutako gutunetan zehatz-mehatz azal ditzatela beren aldarrikapenak eta proposamenak. Konparazio batera, esan dezakete ikastetxeko sarrera eta irteera orduetan auto asko izaten dela behar ez bezala aparkatuta, oinezkoen joan-etorriak oztopatzen dituztela, eta horregatik oinezkoek galtzadara jaitsi behar izaten dutela. Proposa dezakete udaltzain bat etor dadila zirkulazioa erregulatzera, edo hortik hurbil parkina jar dezatela, eta abar.

Egunkarira zuzendutako gutunetan, berriz, alde hauek izan beharko lirateke garrantzitsuenak: herritarrak sentiberatzea; herritarrok mugikortasuna hobetzeko eta istripuak gutxitzeko izan beharko genituzkeen jarrera eta ardura pertsonalak. Esaterako, eta berriz ere ikastetxeko sarrera eta irteera orduan adibidea hartuta, ea zer egin lezaketen autoarekin etortzen diren guraso horiek, ea zer bizikidetzatza eta errespetu balioei eman beharko litzaiekeen lehentasuna guztion onaren eta segurtasunaren mesedetan.

Azken emaitza, hortaz, lurraldean gertatzen diren arazoaren azterketa bat izango da, aldaketak egiteko proposamenekin, eta bi testu ezberdinetan jasota: bata, Administrazioaren ardurari begira; eta bestea, zirkulatzen dugun guztion ardurari begira.

Talde txikietan lana egiten bukatutakoan, talde handian irakurriko dituzte beren lanak. Arriskuak eragiten dituzten bide egoerak eta emandako konponbideak eztabaidatu eta nabarmenduko dira, egiturazko eta aldaketa pertsonaleko proposamen horiek areago zabaltzen saiatuta.

42

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarrizketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURO

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○



10. JARDUERA NOLA ERAGITEN DIGUTEN

HELBURUAK

- Gogatzera zuzendutako mezuei buruz gogoeta egitea.
- Erabakiak hartzen dituztenean besteen eraginak zer ondorio dituen identifikatzea.

METODOA

Talde txikietan lan egitea eta taldean eztabaidatzea.



NOLA EGIN

Hezitzaileak jarduera aurkeztuko die ikasleei. Gehienez lau laguneko taldeak egiteko eskatuko die. Talde bakoitzak lan hau egin beharko du:

- Gustatu zaien telebistako iragarki bat (oraingoa edo iraganekoa) bilatu.
- Iragarkia aztertu. Azterketarako iradokizunak:
 - Zer saltzen du iragarkiak (esplizituki eta inplizituki)?
 - Zer egiten du besteengana iristeko, zer elementu erabiltzen ditu?
 - Zer mezu iristen da hartzaileengana?
 - Nori zuzenduta dago iragarkia?
 - Erosiko al lukete produktu edo zerbitzu hori?
 - Zertan eragin diezaieke ikus-entzuleei?
 - Zer emozio pizten ditu iragarkiak?

Hezitzaileak iragarkiak iradoki diezazkieke ikasleei, oso galduta ikusten baditu. Adibidez, edarien iragarkiak edo autoenak.

Talde txikian lana bukatutakoan, talde handian azalduko dituzte beren ondorioak. Talde osoak aurkitu beharko du zein diren gogatzeko elementuak, eta mezu inplizituak oso bereziki nabarmendu beharko ditu.

Gogoeta egin behar dute ea guk erabakiak hartzean zer garrantzi duen kanpo eraginak, eta horrenbestez nola gogatzera eragin estrategia bat den.

Ondorio hori onartu dutenean, eztabaida ireki daiteke, eta gai honetara bideratu: erabakiak hartzen dituztenean adiskideek duten eragina. Jar ditzatela beren mugikortasunari buruzko adibideak.

Konparazio batera, honelako galderak egin daitezke:

- Kaskoa erabiliko al lukete, txirrinduz ibiltzean, beren adiskide guztiek jartzen ez badute?
- Errepide bat zeharkatuko al lukete, arriskutsua dela jakinda, beren taldeak pasabide goratu batetik joan nahi ez duelako?

Elkarriketa naturala izan behar du, ikasleei beren emozioak eta arrazoibideak adierazten utzita. Azter dezatela ea besteei gure jokabideei buruzko erabakiak hartzen zergatik uzten diegun, jakinda hori arriskutsua dela guretzat.

Nabarmendu beharrekoa da zer desabantaila dauden (ez ditugu erabaki propioak hartzen, arriskuan jartzen dugu geure burua...) taldeari gu presionatzen uzten diogunean, eta zer lortzen dugun trukean (taldeak onartzen gaituela uste izatea).

43

Ahozko komunikazioa: entzun, hitz egin eta elkarriketan aritu

Idatzizko komunikazioa: irakurri eta idatzi

Literatura hezkuntza

HONETAN ERE... SEGURU

Hizkuntza eta Mugikortasun
Segururako Jarduerak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ○ ○



Material honen egileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

formaccio

taller kreatiboa
taller creativo
creative workshop

tk

-2013-

